

SONY®

Erabiltzailearen gida

Xperia™ J
ST26i/ST26a

Edukia

Xperia™ J Erabiltzailearen gida.....	6
Lehen urratsak.....	7
Zer da Android™?.....	7
Telefonoaren ikuspegi orokorra.....	7
Muntaketa.....	8
Piztu eta itzali telefonoa	11
Pantailaren blokeoa.....	11
Konfigurazio laguntzailea.....	12
Kontuak eta zerbitzuak.....	12
Ezagutu zure telefonoa.....	13
Teklak erabiltzea.....	13
Bateria.....	13
Ukipen pantaila erabiltzea.....	15
Hasierako pantaila.....	18
Aplikazioetara sartzea eta eurak erabiltzea.....	20
Egoera eta jakinarazpenak.....	22
Telefonoaren ezarpenen menua.....	23
Idatzi testua.....	24
Telefonoa pertsonalizatzea.....	28
Memoria.....	30
Telefonoarekin entzungailua erabiltzea.....	31
Interneteko eta mezularitzako ezarpenak.....	31
Datu erabilera kontrolatzea.....	32
Mugikorren sareen ezarpenak.....	33
Google Play™.....	35
Google Play™ zerbitzua erabiltzen hastea.....	35
Google Play™ zerbitzutik deskargatzea.....	35
Aplikazioetako datuak ezabatu.....	36
Baimenak.....	36
Google Play™ zerbitzukoak ez diren aplikazioak instalatzea	36
Deitzea.....	37
Larrialdi deiak.....	37
Deien kudeaketa.....	37
Erantzungailua.....	38
Aldi bereko deiak.....	39
Konferentzia-deiak.....	39
Dei-ezarpenak.....	40
Kontak.	42
Kontak. aplikazioari buruz.....	42

Kontaktuak gailu berrira transferitzea.....	42
Kontaktuak kudeatzea.....	44
Zure kontaktuekin komunikatu.....	46
Kontaktuak partekatu.....	47
Egin kontaktuen babeskopiak.....	47
Mezularitza.....	48
SMSak eta MMSak erabili.....	48
SMSen eta MMSen aukerak.....	49
Google Talk™	50
Posta elektronikoa.....	51
Posta elektronikoarekin lehen urratsak ematea.....	51
Erabili posta-elektronikoa.....	52
Musika erreproduzitzailerak	56
Musikari buruz.....	56
Multimedia fitxategiak kopiatzea memoria txartelean	56
Erabili musika-erreproduzizigailua	57
Erlazionaturiko audio edukia aurkitu.....	58
Pistak antolatzeko Nire musika erabiltzea	58
Erreproduzio zerrendak.....	60
Musika-erreproduzitzaileraren widget-a	61
Zure entzumena zaintzea.....	61
TrackID teknologia.....	61
PlayNow™ zerbitzua.....	62
FM irratia.....	64
FM irratari buruz.....	64
Erabili gogoko irratikateak.....	65
Soinu ezarpenak.....	65
Irratiko pisten identifikazioa TrackID™-rekin.....	65
Kamera.....	66
Kamerari buruz.....	66
Kamera finkoarekin argazkiak ateratzea.....	67
Gehitu kokapen geografikoa argazkietan.....	67
Kameraren ezarpenak.....	68
Bideoak grabatzea.....	70
Bideokameraren ezarpenak.....	70
Albuma.....	73
Albumeko argazkiak eta bideoak ikustea.....	73
Telefonoan gordetako argazkiak eta bideoak ikustea	73
Argazkiak mapa batean ikustea.....	77
Lineako albumak ikustea.....	79
Filmak.....	81
Movies aplikazioari buruz jakin beharrekoak.....	81

Movies aplikazioa erabiltzea.....	81
Web-arakatzaileria.....	82
Web arakatzailerari buruz.....	82
Web arakatu.....	82
Web orrietan zehar nabigatu.....	83
Laster markak kudeatzea.....	84
Testua eta irudia kudeatu.....	85
Hainbat leiho.....	85
Webetik deskargatu.....	86
Arakatzaileraren ezarpenak.....	86
Konektagarritasuna.....	88
Hari gabeko sareetara konektatzea.....	88
Hari gabeko Bluetooth™ teknologia.....	90
Telefonoa ordenagailura konektatu.....	92
NeoReader™ aplikazioarekin barra kodeak eskaneatzea.....	94
Telefonoan datuak sinkronizatzea.....	96
Telefonoan datuak sinkronizatzeari buruz.....	96
Sinkronizatu Google™-rekin.....	96
Enpresako posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak sinkronizatzea.....	97
Facebook™-ekin sinkronizatzea.....	97
Sinkronizatu SyncML™ erabiliz.....	98
Mapak eta kokapenak.....	100
Kokapen zerbitzuei buruz.....	100
GPSa erabiltzea.....	100
Google Maps™.....	100
Argibideak eskuratzeko Google Maps™ erabiltzea.....	101
Egutegia eta alarma.....	102
Egutegia.....	102
Alarma.....	102
Laguntza eta mantentzea.....	105
Eguneratu telefonoa.....	105
Blokeatu eta babestu telefonoa.....	106
Laguntza aplikazioa.....	109
Zure telefonoa birziklatzea.....	109
Erreferentzia.....	110
Telefonoaren ezarpenen ikuspegi orokorra.....	110
Egoeraren eta jakinarazpen ikonoen ikuspegi orokorra.....	111
Aplikazioen ikuspegi orokorra.....	112
Informazio garrantzitsua.....	114
Informazio garrantzitsuaren liburuxka.....	114

Zerbitzuen eta eginbideen mugak.....	114
Lege-informazioa.....	114
Aurkibidea.....	115

Xperia™ J Erabiltzailearen gida



Lehen urratsak


Zer da Android™?


Sony Xperia telefono adimendunak Android plataforman funtzionatzen du. Android telefonoek ordenagailuak egiten dituen funtzio asko eta asko egin ditzakete, eta zure eskakizunen arabera pertsonaliza ditzakezu. Adibidez, aplikazioak gehi eta ezaba ditzakezu edo dagoeneko sortutako aplikazioak hobetu ditzakezu funtzionaltasuna areagotzeko. Google Play™ zerbitzuan aplikazio eta joko sorta zabala deskarga dezakezu, hazi eta hazi ari den bildumatik. Android™ telefonoko aplikazioak beste aplikazio batzuekin eta erabiltzen dituzun lineako zerbitzuekin integra ditzakezu. Adibidez, telefonoko kontaktuen babeskopia egin dezakezu, posta elektronikoko kontuetara eta egutegira sar zaitezke leku bakar batetik, hitzorduen jarraipena egin dezakezu eta sare sozialetan sar zaitezke.

Android™ telefonoak etengabe garatzen ari dira. Softwarearen bertsio berri bat erabilgarri dagoenean eta telefonoak software berri hori onartzen badu, telefonoa egunera dezakezu eginbide berriak eta azken hobekuntzak eskuratzeko.

- 💡 Android™ telefonoak Google™ zerbitzuak aurrez kargatuta ditu. Emandako Google™ zerbitzuei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, Google™ kontu bat izan eta saioa hasi behar duzu bertan, telefonoa lehen aldiz abiarazten duzunean. Interneterako sarbidea behar duzu Android™ eginbide asko eta asko erabiltzeko.
- ! Baliteke software argitalpen berriak telefono guztiekin bateragarriak ez izatea.

Telefonoaren ikuspegi orokorra






- | | |
|---------------------------------|---|
| 1. Hurbiltasun-sentsorea 1 | 11. Jakinarazpen argia sare sozialentzako |
| 2. Hurbiltasun-sentsorea 2 | 12. Atzera tekla |
| 3. LED jakinarazpen argia | 13. Ukipen pantaila |
| 4. Aurrealdeko kameraren lentea | 14. Kameraren lentea |
| 5. Entzungailua | 15. Kameraren LED argia |
| 6. Pizteko tekla | 16. Entzungailuaren konektorea |
| 7. Bolumenaren/Zoomaren tekla | 17. Kargagailuaren eta USB kablearen konektorea |
| 8. Mikrofonoa | 18. Bozgorailua |
| 9. Menu tekla | 19. Uhalaren zuloa |
| 10. Hasiera tekla | 20. Bateriaren estalkiaren irekidura |


Muntaketa

Bateriaren estalkia kentzeko



! Ez erabili objektu zorrotzik, telefonoaren zatiak honda baitaitezke.


Bateria kendu



- 1 Kendu bateriaren estalkia.
- 2 Jarri zure hatzen punta bateriaren atzeko beheko aldeko irekiduran eta jaso bateria.


Memoria txartela eta SIM txartela sartzeko

- ! Ez sartu bateragarria ez den SIM txartelik, adibidez, mikro SIM txartel bat, SIM txartelaren zirrikitan. Behin eta berriro eginez gero, SIM txartela edo telefonoa hondatuko duzu.




- 1 Itzali telefonoa.
 - 2 Kendu bateriaren estalkia, sartu memoria txartela eta SIM txartela dagokion zirrikitan.
- ! Hainbat herrialdetan agian ez dator memoria txartela telefonoarekin batera.

SIM txartela kentzeko




- 1 Itzali telefonoa.
- 2 Kendu bateriaren estalkia.
- 3 Jarri hatzaren punta SIM txartelean eta irristatu zirrikitutik kanpora.

Memoria txartela kentzeko



- Desaktibatu telefonoa edo desmuntatu memoria txartela **Ezarpenak > Biltegia > Desmuntatu SD txartela** ataletik.


Bateriaren estalkia eransteko



- 1 Estalkia jarri telefonoaren atzealdeko estalkiko kameraren lentearen zuloa kameraren lentearekin bat egin dezan.
- 2 Sakatu tinko bateriaren estalkiaren ertzetan ertsiki lotuta dagoela ziurtatzeko.

Piztu eta itzali telefonoa

Telefonoa pizteko



- 1 Eduki sakatuta telefonoaren eskuinaldeko pizteko tekla **ⓘ**, telefonoak dardara egin arte.
 - 2 Pantaila iluntzen bada, sakatu labur pizteko tekla **ⓘ** pantaila aktibatzeko.
 - 3 Pantaila desblokeatzeko, arrastatu **🔒** eskuinera pantailan zehar.
 - 4 Sartu zure SIM txartelaren PINa eskatzen zaizunean, eta hautatu **Ados**.
 - 5 Itxaron telefonoa abiarazi arte.
- 💡 Zure sare-hornitzaileak emango dizu hasieran zure SIM txartelaren PINa, baina gero **Ezarpenak** menuan aldatu ahal izango duzu. SIM txartelaren PIN kodea sartzean egindako akatsak zuzentzeko, punteatu **✖**.

Desaktibatu telefonoa

- 1 Eduki sakatuta **ⓘ** pizteko tekla aukeren menua irekitzen den arte.
 - 2 Aukeren menuan, sakatu **Itzali**.
 - 3 Punteatu **Ados**.
- ⚠ Baliteke zenbait denbora behar izatea telefonoa itzali arte.

Pantailaren blokeoa

Telefonoa piztuta badago baina aldi batean geldirik utzi bada, pantaila ilundu egiten da eta bateriaren energia gordetzen du, eta bakarrik blokeatzen da. Telefonoa erabitzen ari ez zarenean, ukipen pantailan nahigabeko ekintzak egitea saihesten du pantailaren blokeoak.

Pantaila aktibatzeko

- Sakatu labur **ⓘ** pizteko tekla.

Pantaila desblokeatzeko



- Arrastatu **🔒** eskuinera pantailan zehar.


Pantaila blokeatzeko

- Pantaila aktibo dagoenean, sakatu azkar  pizteko tekla.

Konfigurazio laguntzailea

Telefonoa pizten duzun lehen aldian, konfigurazio laguntzaileak telefonoaren oinarrizko funtzioak azalduko dizkizu eta oinarrizko ezarpenak sartzen lagunduko ditu. Momentu ona da telefonoa zure beharren arabera konfiguratzeko. Era berean, geroago ere sar zaitezke konfigurazio gidara Aplikazioa pantailatik.

Konfigurazio laguntzailera sartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** pantailan, punteatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Konfigurazio gida**.

Kontuak eta zerbitzuak

Hasi saioa telefonotik lineako zerbitzu kontuetan eta atera etekin zerbitzu sorta zabalari. Konbinatu zerbitzuak eta atera oraindik ere etekin handiagoa. Adibidez, bildu kontaktuak Google™ eta Facebook™ kontuetatik eta integratu kontaktuen aplikazioan, denak leku berean izan ditzazun.

Telefonotik edo ordenagailutik hasi dezakezu saioa lineako zerbitzuetan. Lehen aldiz saioa hasten duzunean, kontu bat sortzen da erabiltzaile izenarekin, pasahitzaren, ezarpenekin eta informazio pertsonalekin. Saioa hasten duzun hurrengo aldian, ikuspegi pertsonalizatua izango duzu.

Google™ kontua

Goggle™ kontua ezinbestekoa da Android telefonoko hainbat aplikazio eta zerbitzu erabiltzeko. Google™ kontua beharko duzu, esaterako, **Gmail™** aplikazioa zure telefonoan erabiltzeko, zure lagunekin Google Talk™ bidez hitz egiteko, zure telefonoko egutegia sinkronizatzeko Google Calendar™ bitartez, eta Google Play™-tik aplikazioak, jolasak filmak eta liburuak deskargatzeko.

Microsoft® Exchange ActiveSync® kontua

Sinkronizatu telefonoa enpresako Microsoft® Exchange ActiveSync® kontuarekin. Horrela, laneko posta kontua, kontaktuak eta egutegiko gertaerak aldean eramango dituzu uneoro.

Facebook™ kontua


Facebook™ sare sozialeko zerbitzua da eta munduan barrena dauden zure lagunekin, familiarekin eta lankideekin konektatzen zaitu. Konfiguratu Facebook zure telefonoan funtzionatzeko, edonondik harremanetan egon zaitezten.

SyncML™ kontua

Telefonoa Interneteko zerbitzari batekin sinkroniza dezakezu, SyncML™ aplikazioa erabiliz. Ikusi eta kudeatu kontaktuak, egutegiko gertaerak eta laster markak telefonotik, ordenagailuan bezain erraz.

Ezagutu zure telefonoa

Teklak erabiltzea



Atzera

- Itzuli aurreko pantailara
- Itxi pantailako teklatura, elkarrizketa-koadroa, aukeren menua edo jakinarazpen panela



Hasiera

- Zoaz **Hasierako pantaila** atalera
- Eduki sakatuta erabili dituzun azken aplikazioak erakusten dituen leihoa ireki dadin




Menua

- Ireki uneko pantailan edo aplikazioan erabilgarri dauden aukeren zerrenda


Bateria

Bateria kargatzea

Telefonoaren bateriak karga pixka bat izaten du erosten duzunean. Hainbat minutu igaro daitezke bateriaren ikonoa  pantailan agertu aurretik, telefonoaren kargagailuaren kablea energia-hartune batera konektatzen duzunean, adibidez, USB ataka batera edo telefonoaren kargagailura. Kargatzen ari den bitartean, telefonoa normaltasunez erabil dezakezu. Telefonoa denbora luzez kargatzen edukiz gero, gau osoan adibidez, ez da bateria edo telefonoa kaltetuko.

- ! Bateria deskargatzen hasiko da guztiz kargatutakoan eta, ondoren, berriro kargatzen hasiko da telefonoaren kargagailura konektatuta badago. Bateriaren iraupena luzatzeko egiten du hori eta, ondorioz, baliteke karga-maila %100etik behera bistaratzea.

Zure gailua kargatzea



- 1 Entxufatu kargagailua korrante hartune batera.
 - 2 Entxufatu USB kablearen mutur bat kargagailuan (edo ordenagailuaren USB atakan).
 - 3 Entxufatu kablearen beste muturra gailuaren micro USB atakan, USB ikurra gora begira dagoela. Bateriaren egoeraren LEDa piztu egiten da bateria kargatzen hastean.
 - 4 Bateriaren egoeraren LEDa berde dagoenean, gailua erabat kargatuta dago. Deskonektatu USB kablea gailutik kanpora tiratuz. Ziurtatu konektorea okertzen ez duzula kablea gailutik kentzean.
- 💡 Bateria erabat deskargatuta badago, baliteke minutu batzuk behar izatea LED argiak pizteko, gailuaren kargagailuaren kablea energia hartune batera konektatzen duzunean.

Bateria LED-aren egoera

Berdea	Bateria guztiz kargatuta dago
Gorri keinukaria	Bateria gutxi gelditzen da
Laranja	Bateria kargatzen ari da. Ez da bateria asko ez gutxi gelditzen

Bateria egiaztatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Telefonoari buruz > Egoera > Bateria maila**.


Bateriaren errendimendua hobetzea

Ondorengo aholkuek zure bateriaren errendimendua hobetzen lagunduko dizute:


- Kargatu gailua maiz. Ez dio bateriaren iraupenari eragingo.
- Internetetik datuak jaistek energia kontsumitzen du. Internet erabiltzen ari ez zarenean, energia aurrez dezakezu datu konexio guztiak sare mugikorretan desgaituta. **Ezarpenak > Gehiago... > Sare mugikorrek > Datu trafikoa** atalean egin dezakezu hori. Ezarpen horrek ez du datuak hari gabeko sareen bidez transmititzeari eragotziko.
- Desaktibatu GPS, Bluetooth™ eta Wi-Fi® konexioak eginbide horiek behar ez dituzunean. Errazago aktibatu eta desaktibatuko dituzu Ezarpen azkarrak widgeta **Hasierako pantaila** ikuspegian gehitzen baduzu. Ez duzu zertan 3G desaktibatu behar.
- Ezarri sinkronizazio aplikazioak (posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak sinkronizatzeko erabiltzen dena), eskuz sinkronizatzeko. Automatikoki ere sinkroniza daiteke, baina sinkronizatzeko denbora gehiago behar da.
- Irakurri gailuaren bateriaren erabilerari buruzko menua ikusteko zein aplikaziok kontsumitzen duen energia gehien. Zure bateriak energia gehiago kontsumituko du bideoak eta musika erreproduzitzeko aplikazioak, esaterako YouTube™, erabiltzen dituzunean. Android Market™ zerbitzuko zenbait aplikaziok ere energia asko kontsumitzen du.
- Itxi eta irten erabiltzen ari ez zaren aplikazioetatik.
- Pantailaren argitasun maila jaitsi.
- Gailua desaktibatu edo **Hegaldi modua** erabili estaldurarik gabeko eremuan bazaude. Bestela, gailuak etengabe bilatuko ditu sare erabilgarriak, eta horrek bateria kontsumitu egiten du.

- Erabili Sony-ren jatorrizko eskulibre gailuak musika entzuteko. Eskulibre gailuek gailuaren bozgorailuek baino bateria gutxiago erabiltzen dute.
- Jarri gailua egonean moduan ahal den guztietan. Egonean moduaren iraupena deritzo gailua sarera konektatuta egon, baina erabiltzen ez den denborari.


Bateriaren erabileraren menua atzitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta ukitu **Ezarpenak** > **Bateriabateria** gehien instalatuta duzun zein aplikaziok kontsumitzen duen jakiteko.

Datu trafikoaren widgeta hasierako pantailan gehitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- 2 Punteatu **Gehitu** > **Widget-ak** > **Tresnak**.
- 3 Korritu ezkerrera eta hautatu **Datu-trafikoa** widgeta. Orain zure datu konexioa errazago aktibatu eta desaktibatu ahal izango dituzu.


Quick ezarpenen widgeta pantaila nagusian gehitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- 2 Punteatu **Gehitu** > **Widget-ak** > **Tresnak**.
- 3 Hautatu **Ezarpen bizkorak** widgeta.


Bateria Aurrezlearekin bateriaren kontsumoa gutxitzea

Erabili aurrez ezarritako bateria aurrezteko moduak bateriaren kontsumoarekin lotutako aplikazioak kudeatzeko eta bateriaren kontsumoa gutxitzeko. Bateria Aurrezlearekin, bateria aurrezteko modu bakoitzaren ezarpenak pertsonaliza ditzakezu telefonoa erabiltzen duzun moduaren arabera.



Bateria aurrezteko modua aktibatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Aurreztu bateria**.
- 3 Sakatu aktibatu nahi duzun bateria aurrezteko moduaren ondoan dagoen ikonoa.



Bateria aurrezteko modua desaktibatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Aurreztu bateria**.
- 3 Sakatu bateria aurrezteko modu aktiboaren alboan argituta dagoen ikonoa itzaltzeko.

Energia aurrezteko moduaren ezarpenak aldatu

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Aurreztu bateria**.
- 3 Ezarpenen menua irekitzeko, punteatu energia aurrezteko moduaren izena.
- 4 Ezarpena doitu energia aurrezteko.
- 5 Punteatu .

Bateria aurrezlearen jakinarazpenak bistartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Aurreztu bateria**.
- 3 Punteatu .
- 4 Markatu **Egoera barra** kontrol laukia.

Ukipen pantaila erabiltzea

Plastikozko film babesle bat ikusiko duzu telefonoaren pantailan telefonoa erosten duzunean. Film hori kendu egin beharko zenuke ukipen pantaila erabiltzen hasi aurretik. Bestela, baliteke ukipen pantailak behar bezala ez funtzionatzea.

Telefonoa piztuta badago baina aldi batean geldirik utzi bada, pantaila ilundu egiten da eta bateriaren energia gordetzen du, eta bakarrik blokeatzen da. Telefonoa erabiltzen ari ez zarenean, ukipen pantailan nahigabeko ekintzak egitea saihesten du pantailaren

blokeoak. Nahi duzun bezala blokeatu ahal izango duzu zure harpidetza babesteko eta zure mugikorreko edukia zeuk bakarrik atzitzeko.

- ! Telefonoaren pantaila beirazkoa da. Ez ukitu pantaila, beira pitzatuta edo apurtuta badago. Ahal dela ez zaituz saiatu kaltetutako pantaila konpontzen. Beirazko pantailak sentikorrek dira erorketei eta astinaldi mekanikoei. Sony-ren berme zerbitzuak ez du estaltzen axolagabe zaintzeagatik eratorritako kasuak.

Ireki edo nabarmendu elementuak

- Sakatu elementua.

Aukerak markatzea

- Markatutako kontrol-laukia
- Desmarkatutako kontrol-laukia
- Markatutako zerrendako aukera
- Desmarkatutako zerrendako aukera

Markatu edo desmarkatu aukerak

- Punteatu dagokion kontrol laukian edo zerrenda aukeran.

- Markatutako kontrol-laukia
- Desmarkatutako kontrol-laukia
- Markatutako zerrendako aukera
- Desmarkatutako zerrendako aukera


Zooma

Zooma erabiltzeko aukera erabilgarriak erabiltzen ari zaren aplikazioaren arabera dira.

Zooma

- Zooma erabilgarri dagoenean, punteatu **+** edo **-** handiagotzeko edo txikiagotzeko.
- ! Agian hatza arrastatu beharko duzu pantailan (edozein norabidetan) zoom-ikonoak ager daitezen.

Bi hatzekin zooma aplikatzeko



- Ezarri bi hatzak batera pantailan eta hurbildu (txikitzeko) edo urrundu (handitzeko) bata bestearengandik.
- 💡 Erabili zoom funtzioa argazkiak eta mapak ikusten ari zarenean edo weba arakatzen ari zarenean.

Hasierako pantaila

Telefonoaren **Hasierako pantaila** eta ordenagailuko mahaigaina baliokideak dira. Telefonoko eginbide nagusien atebidea. Widget-ekin, horma-paperarekin eta beste elementu batzuekin pertsonaliza dezakezu **Hasierako pantaila**.

Hasierako pantaila pantaila fisikoa baina zabalagoa da; beraz, ezkerrera edo eskuinera korritu behar duzu pantailaren lau luzapenenetako edukia ikusteko. ○○○○ adierazleak **Hasierako pantaila** ikuspegiaren zein ataletan zauden erakusten du.



Pantailaren behealdeko barrako elementuak beti erabilgarri daude bizkor atzitzeko.

Hasierako pantailara joateko

- Sakatu

Hasierako pantaila arakatzeko

- Korritu eskuinera edo ezkerrera.

Elementuak hasierako pantailatik partekatzeko

- 1 Sakatu **Hasierako pantaila** irekitzeko.
- 2 Eduki ukituta elementu bat handitu eta telefonoak dardara egin arte. Orduan, arrastatu elementua karpetara.
- 3 Hautatu aukera bat eta berretsi, behar izanez gero. Gustuko dituzun aplikazioak eta widget-ak parteka ditzakezu lagunekin, horiek deskargatu eta erabili ahal izateko.

Widgetak

Widgetak zuzenean **Hasierako pantaila**-n erabili ditzakezun aplikazio txikiak dira. Esaterako, "WALKMAN" widgetaren bitartez, musika zuzenean erreproduzitu dezakezu.

Widget batzuk tamainaz aldatu daitezke: eduki gehiago ikusteko handitu ditzakezu, edo bestela, txikitu, **Hasierako pantaila**-n toki gutxiago har dezaten.

Widget-ak hasierako pantailan gehitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- 2 Punteatu **Gehitu > Widget-ak**.
- 3 Punteatu widget bat.

Widget bati tamaina aldatzeko

- 1 Eduki ukituta widget bat handitu eta telefonoak dardara egin arte. Orduan, askatu widgeta. Widgetari tamaina aldatu badiezioketu, narbarmendutako marko bat eta tamainaz aldatzeko puntuak agertuko dira.
- 2 Arrastatu puntuak barrurantz edo kanporantz widgeta txikitu edo hedatzeko.
- 3 Widgetaren tamaina berria berresteko, punteatu **Hasierako pantaila** ikuspegioko punturen batean.

Lortu pantailako widget guztien ikuspegi orokorra

- Egin atximur **Hasierako pantaila** ikuspegiko edozein eremuri. **Hasierako pantaila** ikuspegiko widget guztiak ikuspegi bakarrean bistaritzen dira.
- 💡 **Hasierako pantaila** ikuspegiko widget guztiak ikuspegi bakarrean konbinatuta daudenean, punteatu edozein widget, widget hori duen **Hasierako pantaila** ikuspegiko eremura joateko.

Timescape™ Feed widgeta

Timescape™ iturria widgetak duela gutxiko Timescape™ gertaera guztiak erakusten ditu ikuspegi batean. Widgetean gora eta behera egin dezakezu gertaera bakoitzaren eduki osoa ikusteko. Horrez gain, gertaera bat puntea dezakezu haren edukia pantaila osoko formatuan ikusteko edo edukia iruzkintzeko, atsegin duzula adierazteko edo tweet-a birbidaltzeko.

Timescape™ Lagunak widgeta

Timescape™ Lagunak widgetak zure eta zure lagunen sare sozialetako azken jardueren berri ematen dizu. Jarduera guztiak ikusi eta lagunekin harremanetan jar zaitezke iruzkinak, gustukoak eta retweetak erabiliz.

Timescape™ Partekatu widgeta

Partekatu zure egoera telefonotik saioa hasi duzun zerbitzuetako baten bidez. Adibidez, eguneratzeak Facebook™ edo Twitter™ aplikazioan argitara ditzakezu.

Berrantolatu hasierako pantaila


Pertsonalizatu hasierako pantailaren itxura eta aldatu bertatik atzitzen dituzun eginbideak. Aldatu pantailaren atzeko plano, aldatu elementuak tokiz, sortu karpetak eta gehitu laster-teklak kontaktuei.

Ireki aukeren menua hasierako pantailan

Hasierako pantaila ikuspegiko aukeren menua bi modutara ireki dezakezu:


- **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- Eduki ukituta **Hasierako pantaila** ikuspegiko edozein puntu.

Laster-markak hasierako pantailan gehitzeko


- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- 2 Punteatu **Gehitu** > **Laster teklak**.
- 3 Bilatu eta hautatu laster-marka bat.

- 💡 Gehitu aplikazioen laster-markak zuzenean Aplikazioen pantailatik, aplikazioa ukituta edukita.

Eraman elementuak hasierako pantailara

- 1 Sakatu  **Hasierako pantaila** irekitzeko.
- 2 Eduki ukituta elementu bat handitzen den eta telefonoak dardara egiten duen arte. Orduan, arrastatu elementua kokapen berrira.

Widgetak hasierako pantailatik ezabatzeko

- Eduki ukituta elementu bat handitu eta telefonoak dardara egin arte. Orduan, arrastatu elementua  karpetara.

Karpetak hasierako pantailan gehitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- 2 Punteatu **Gehitu** > **Karpeta**.
- 3 Idatzi izen bat karpetarentzat eta punteatu **Eginda**.

- 💡 Arrastatu eta jaregin elementu bat hasierako pantailako beste elementu baten gainean automatikoki karpeta bat sortzeko.

Karpeta batean elementuak gehitzeko

- Eduki ukituta elementu bat handitu eta telefonoak dardara egin arte. Orduan, arrastatu elementua karpetara.



Aldatu izena karpeta bati

- 1 Punteatu karpeta, hura irekitzeko.
- 2 Ukitu karpetaren izenburu-barra **Karpetaren izena**, eremua erakusteko.
- 3 Sartu karpetaren izen berria eta punteatu **Eginda**.



Aldatu hasierako pantailaren atzeko plano

Egokitu **Hasierako pantaila** zure beharretara horma-paper eta gai desberdinak erabiliz.

Hasierako pantailaren horma-papera aldatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
 - 2 Punteatu **Horma papera**, eta hautatu aukera bat.
-  Zuk ateratako argazkiak edo animazioak erabil ditzakezu. Joan Google Play™ zerbitzura eta beste iturri batzuetara, besteak beste, eguneko orduak aurrera joan ahala aldatzen diren horma-paper bizidunak deskargatzeko.

Gaiak ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
 - 2 Punteatu **Gaia** eta, ondoren, hautatu gaia.
-  Gaia aldatzen duzunean, zenbait aplikazioen atzeko plano ere aldatuko da.

Aplikazioetara sartzea eta eurak erabiltzea


Ireki aplikazioak **Hasierako pantailako** laster teklatik edo Aplikazioen pantailatik.

Aplikazioen pantaila

Aplikazioen pantailan, **Hasierako pantailatik** irekitzen duzunean, telefonoa erostean instalatuta datozen aplikazioak agertzen dira, baita deskargatzen dituzun aplikazioak ere.

Aplikazio pantailak ohiko pantailak baino zabalera handiagoa du eta, beraz, ezkerrera eta eskuinera korritu duzu eduki guztia ikusteko.

Aplikazio pantaila irekitzeko



- **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .




Aplikazioen pantaila arakatzeko

- Ireki aplikazioen pantaila eta korritu eskuinera edo ezkerrera.

Hasierako pantailako aplikazio baten laster tekla sortzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Eduki ukituta aplikazioa **Hasierako pantaila** agertu arte eta arrastatu nahi duzun kokapenera.

Desinstalatu aplikazioen pantailako aplikazio bat

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu . Desinstala daitezkeen aplikazio guztiek  ikonoa dute.
- 3 Sakatu desaktibatu nahi duzun aplikazioa eta, ondoren, punteatu **Ados**.

Egoera eta jakinarazpenak

Pantailaren goialdeko egoera barrak erakusten dizu zer gertatzen ari den telefonoan. Ezkerrean, jakinarazpenak eskuratuko dituzu zerbait berria gertatzen dendan. Adibidez, mezu berrien eta egutegiaren jakinarazpenak hortxe agertuko dira. Eskuinaldean, seinalearen indarra, bateriaren iraupena eta beste informazio bat erakusten da.



Jakinarazpen argi batek ere emango dizu bateriaren egoeraren eta beste jakinarazpen batzuen berri. Adibidez, argi urdin keinukariak mezu berri bat edo dei galdu bat dagoela esan nahi du. Baliteke jakinarazpen argiak ez funtzionatzea bateria gutxi daukazunean.



Jakinarazpenak eta abian diren ekintzak begiratzea

Egoera barraraino arrastatu dezakezu, Jakinarazpen panela irekitzeko eta informazio gehiago eskuratzeko. Mezu berria irekitzeko edo egutegiko gertaera bat ikusteko erabil dezakezu panela, adibidez. Atzeko planoan abian egongo diren aplikazio batzuk ere ireki ditzakezu; musika erreproduzitzailea, adibidez.

Ireki jakinarazpen-panela



- Arrastatu egoera-barra behera.

Jakinarazpen panela ixteko



- Arrastatu jakinarazpen panelaren behealdeko fitxa gorantz.

Ireki exekutatzen ari diren aplikazioak jakinarazpen-paneletik

- Ukitu exekutatzen ari den aplikazioaren ikonoa aplikazioa irekitzeko.

Jakinarazpenen paneletik jakinarazpenak garbitzea

- Jarri hatza jakinarazpen baten gainean eta korritu ezkerredera edo eskuinera.

Jakinarazpen panela garbitzeko

- Jakinarazpen panelean, punteatu **Garbitu**.

Zure telefonoa Jakinarazpenen paneletik konfiguratzeko

Jakinarazpenen paneleko ezarpenen menua ireki dezakezu telefonoaren oinarritzko ezarpenak doitzeko. Adibidez, Wi-Fi® aktibatu dezakezu.

Telefonoaren ezarpenen menua jakinarazpen-paneletik irekitzeko

- 1 Arrastatu egoera-barra behera.
- 2 Punteatu ✕.

Soinua jakinarazpen paneletik doitzeko

- 1 Arrastatu egoera-barra behera.
- 2 Punteatu 🔊.

Bluetooth™ funtzioa jakinarazpenen paneletik kontrolatzeko

- 1 Arrastatu egoera-barra behera.
- 2 Punteatu 📶.

Wi-Fi® funtzioa jakinarazpenen paneletik kontrolatzeko

- 1 Arrastatu egoera-barra behera.
- 2 Punteatu 📶.

Datu-trafikoa jakinarazpenen paneletik gaitzeko edo desgaitzeko

- 1 Arrastatu egoera-barra behera.
- 2 Punteatu 📶.

Telefonoaren ezarpenen menua

Ikusi eta aldatu telefonoko ezarpenak Ezarpenak menuan.

Telefonoaren ezarpenetan sartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 📶.
- 2 Punteatu **Ezarpenak**.

Idatzi testua

Pantailako teklatura

Punteatu pantailako QWERTY teklaturako teklak testua behar bezala sartzeko. Aplikazio batzuek pantailako teklatura automatikoki irekitzen dute. Testu-eremu bat ukituta ere ireki dezakezu teklatur hori.

Erabili pantailako teklatura



- 1 Aldatu karaktereak maiskulan eta minuskulan artean eta aktibatu maiuskulak. Zenbait hizkuntzetan, teklatur hori hizkuntzaren karaktere gehigarriak atzitzeko erabiltzen da.
- 2 Itxi pantailako teklaturaren ikuspegia.
- 3 Bistaratu zenbakiak eta ikurrak. Eduki ukituta aurpegierak bistaratzeko.
- 4 Sartu zuriune bat.
- 5 Ireki idazketa-erazpenen menua, besteak beste, **Idazketa hizkuntzak** aldatzeko. Teklatur horrek idazketa-hizkuntza ere aldatzen du idazketa-hizkuntza bat baino gehiago hautatu badira.
- 6 Sartu orga-itzulera edo berretsi testu-idazketa.
- 7 Ezabatu kurtsorearen aurreko karakterea.

! Irudi guztiak lagungarriak dira soilik eta litekeena da egiazko telefonoaren itxura zehatza ez izatea.

Bistaratu pantailako teklatura testua sartzeko

- Punteatu testua sartzeko eremu bat.

Ezkatu pantailako teklatura

- Pantailako teklatura irekita dagoela, sakatu ↵.

Erabili pantailako teklatura orientazio horizontalean

- Testua sartzean, ezarri telefonoa horizontalki.
- 💡 Teklaturak eginbide hau onar dezatan, modu horizontala onartu behar du erabiltzen ari zaren aplikazioak eta pantailaren orientazio-erazpenak automatiko gisa egon behar du ezarrita.

Sartu testua pantailako teklatura erabiliz

- Teklaturaren ikusgai dagoen karaktere bat sartzeko, punteatu karakterea.
- Karaktere baten aldagaia idazteko, eduki ukituta teklaturako karaktere arrunt bat erabilgarri dauden aukeren zerrenda lortzeko, eta, ondoren, hautatu zerrendatik. Adibidez, "é" sartzeko, eduki ukituta "e" beste aukera bat agertu arte; ondoren, oraindik ere hatza teklaturaren sakatuta duzula, arrastatu eta hautatu "é".

Aldatu hizki maiuskuletatik minuskuletara eta alderantziz

- Letra bat sartu aurretik, punteatu ⇧ hizki maiuskuletatik aldatzeko ⇨, edo alderantziz.

Aktibatu maiuskulak

- Hitz bat idatzi aurretik, sakatu ⇧ edo ⇨⇧ agertzen den arte.

Sartu zenbakiak eta ikurrak

- Testua sartzerakoan, punteatu 12!?. Zenbaki eta ikurdun teklatu bat agertzen da. Punteatu += \$ aukera gehiago ikusteko.

Ohiko puntuazio markak sartzeko

- 1 Hitza idazten amaitutakoan, punteatu hutsune barra.
- 2 Hautatu puntuazio marka hautagaien barratik. Hautatutako marka hutsunearen aurretik sartuko da.

- 💡 Puntua azkar sartzeko, punteatu hutsune barra birritan hitza sartzen amaitutakoan.

Emotikonoak sartzeko

- 1 Testua idazterakoan, eduki ukituta 12!?.
- 2 Hautatu emotikono bat.

Karaktereak ezabatzeko

- Punteatu kurtsorea lekura ezabatu nahi duzun karakterearen ondoren, gero punteatu ✕.

Orga itzulerara sartzeko

- Testua idazten duzunean, punteatu ← orga itzulerara sartzeko.

Testua hautatzeko

- 1 Idatzi zerbait eta eduki testua punteatuta. Punteatzen duzun hitzaren bi aldetan tabulatzailak agertuko dira.
- 2 Arrastatu tabulatzailak ezkerrera edo eskuinera testu gehiago hautatzeko.

Testua orientazio bertikalean editatzeko

- 1 Testua sartzean, eduki sakatuta testu-eremua aplikazio-barra azaldu arte.
 - 2 Hautatu editatu nahi duzun testua eta, ondoren, erabili aplikazio-barra nahi duzun aldaketak egiteko.
- ! Testua arbeletik itsasteko, testu-eremua sakatuta eduki **Erantsi** azaldu arte eta, ondoren, ukitu **Erantsi**.

Aplikazio-barra



- 1 Itxi aplikazio-barra
- 2 Hautatu testu osoa
- 3 Moztu testua
- 4 Kopiatu testua
- 5 Itsatsi testua



- ! 📄 arbelean testua gordeta duzunean bakarrik azaltzen da.

Pasa hatza idazteko funtzioa erabiltzea hitzak idazteko



Pantailako teklaturan hatza letra batetik bestera irristatuta idatzi dezakezu testua. Jaso hatza hitza baten eta bestearen artean, telefonoan ezagutu ditzan.

- ! **Pasa hatza idazteko** pantailako teklatura erabiltzen duzunean soilik dago erabilgarri.

Pasa hatza idazteko funtzioa erabiliz testua idazteko

- 1 Pantailako teklatua erabiliz testua idazten duzunean, irristatu hatza letra batetik bestera eta idatzi nahi duzun hitza trazatu arte. Jaso hatza hitza idazten amaitutakoan.
 - 2 Telefonoan iradoki berri duzun letretan oinarritutako hitzak iradokiko dizkizu. Beharrezkoa bada, hautatu hitz zuzena hautagaien barran. Aukera gehiago ikusteko, korritu eskuinera edo ezkerrera hitz hautagaien barran. Nahi duzun hitza aurkitu ez baduzu, punteatu  behin hitz osoa ezabatzeko. Ondoren, saiatu berriro hitza trazatzen **Pasa hatza idazteko** erabiliz, edo punteatu letra bakoitza hitza idazteko.
 - 3 **Zuriunea keinuen artean** ezarpena aktibatuta badago, trazatu idatzi nahi duzun hurrengo hitza. Bestela, punteatu hutsune barra eta trazatu idatzin nahi duzun hurrengo hitza.
-  **Zuriunea keinuen artean** ezarpena aktibatuta dagoenean lotutako hitz elkartuak idazteko, baliteke hitzaren lehen zatia idazteko irristatu behar izatea eta gainerakoa idazteko letra bakoitza punteatu behar izatea.


Pasa hatza idazteko ezarpenak aldatzeko

- 1 Pantailako teklatua erabiliz testua sartzerakoan, punteatu . Idazketa hizkuntza bat baino gehiago hautatu badituzu, eduki ukituta .
- 2 Punteatu **Testu sarrera ezarpenak**.
- 3 Markatu edo kendu marka **Pasa hatza idazteko** kontrol laukiari.
- 4 Etengabe zuriunea punteatu gabe keinu baten eta bestearen artean zuriunea automatikoki gehitu nahi baduzu, markatu **Zuriunea keinuen artean** kontrol laukia.

Markagailua

Markagailua telefonoetako ohiko 12 teklako teklatuaren antzekoa da. Testu iragarle eta sakatze anitz aukerak eskaintzen ditu. Teklatuaren ezarpenetan aktiba dezakezu markagailuaren idazketa-metodoa. Markagailua orientazio bertikalean soilik dago erabilgarri.

Erabili markagailua



- 1 Aukeratu testu-idazketa aukera
- 2 Aldatu karaktereak maiuskulen eta minuskulen artean eta aktibatu maiuskulak
- 3 Bistaratu zenbakiak.
- 4 Bistaratu ikurrak eta aurpegierak.
- 5 Sartu zuriune bat.
- 6 Ireki idazketa-ezarpenen menua, besteak beste, **Idazketa hizkuntzak** aldatzeko. Tekla horrek idazketa-hizkuntza ere aldatzen du idazketa-hizkuntza bat baino gehiago hautatu badira.
- 7 Sartu orga-itzulera edo berretsi testu-idazketa.

- ! Irudi guztiak lagungarriak dira soilik eta litekeena da egiazko telefonoaren itxura zehatza ez izatea.

Markagailua lehen aldiz irekitzeko

- 1 Punteatu testua sartzeko eremu bat; ondoren, punteatu ✕ edo eduki ukituta 🌐, dagoeneko idazketa-hizkuntza bat baino gehiago hautatu badituzu.
 - 2 Punteatu **Teklatuaren diseinua** eta hautatu aukera bat.
- 💡 Teklatuaren diseinuaren aukera aukeratutakoan, testua sartzeko eremua punteatze hutsarekin aktibatuko duzu markagailua.

Pantailako teklatutik markagailura aldatzeko

- 1 Testua idazten ari zarenean, punteatu ✕ edo eduki ukituta 🌐, dagoeneko idazketa-hizkuntza bat baino gehiago hautatu badituzu.
 - 2 Punteatu **Teklatuaren diseinua** eta hautatu aukera bat.
- ! Gogoan izan markagailua orientazio bertikalean soilik dagoela erabilgarri.

Sartu testua markagailua erabiliz

Markagailua erabiltzerakoan, bi idazketa-metodo dituzu aukeran:

- Markagailuan ✎ agertzen denean, punteatu karaktere-teklak behin, nahi duzun hizkia teklako lehen hizkia izan ez arren. Punteatu agertzen den hitza edo punteatu ► proposamen gehiago ikusi eta zerrendako hitz bat hautatzeko.
- Markagailuan ✎ agertzen denean, punteatu sartu nahi duzun hizkiari dagokion karaktere-tekla. Sakatu karaktere-tekla behin eta berriro erabili nahi duzun karakterea agertzen den arte. Ondoren, egin gauza bera sartu nahi duzun karaktere bakoitzeko.

Sartu zenbakiak markagailua erabiliz

- Markagailua irekita dagoela, punteatu 123. Zenbakidun markagailua agertzen da.

Txertatu ikurrak eta aurpegierak markagailua erabiliz

- 1 Markagailua irekita dagoela, punteatu &😊. Ikurren eta aurpegieren sareta agertzen da.
- 2 Korritu gora edo behera aukera gehiago ikusteko. Punteatu ikur edo aurpegiera bat hura hautatzeko.

Teklatuaren eta markagailuaren ezarpenak

pantailako teklatuaren eta markagailuaren ezarpenak zehatz ditzakezu, hala nola, idazketa-hizkuntza eta zuzenketa automatikoa.

Atzitu teklatuaren eta markagailuaren ezarpenak

- Pantailako teklatura edo markagailua erabiliz testua sartzen duzunean, punteatu ✕. Idazketa-hizkuntza bat baino gehiago hautatu badituzu, eduki ukituta 🌐.

Aldatu idazketa-hizkuntza pantailako teklatura edo markagailua erabiliz

- 1 Testua idazten ari zarenean, punteatu ✕ edo eduki ukituta 🌐, dagoeneko idazketa-hizkuntza bat baino gehiago hautatu badituzu.
- 2 Punteatu **Idazketa hizkuntzak** eta hautatu idazteko erabili nahi dituzun hizkuntzak.
- 3 Idazteko hizkuntza bat baino gehiago hautatuz gero, punteatu 🌐 hautatutako idazteko hizkuntzen artean aldatzeko.

Teklatuak aldatzeko

- 1 Testua idazten duzunean, arrastatu egoera-barra behera jakinarazpen-panela irekitzeko.
- 2 Ukitu **Hautatu idazketa metodoa** eta hautatu aukera bat.

Testu-idazketa ezarpenak

Testua sartzerakoan, testu-idazketa ezarpenen menua atzi dezakezu, testu iragarlearen aukerak ezartzeko. Adibidez, idazten ari zarela telefonoak hitzen proposamenak eta hitz zuzenak nola aurkeztea nahi duzun erabaki dezakezu, edo testu-idazketa aplikazioa gai dezakezu idatzi dituzun hitz berriak gogora ditzan.

Aldatu testu-idazketa ezarpenak

- 1 Pantailako teklatura edo markagailua erabiliz testua sartzerakoan, punteatu ✕, edo eduki ukituta 🌐.
- 2 Punteatu **Testu sarrera ezarpenak**.
- 3 Hautatu nahi dituzun ezarpenak.

Telefonoa pertsonalizatzea

Egokitu telefonoa zure beharretara, hala nola dei tonu pertsonala, telefonoaren hizkuntza eta Pribatutasun ezarpenak doitu.

Doitu bolumena

Dei-tonuen eta jakinarazpen-tonuen bolumena doi dezakezu, baita musika- eta bideo-erreproduktzioena ere.

Doitu tonuen bolumena bolumen-teklarekin

- Sakatu bolumen tekla gora edo behera.

Doitu multimedia erreproduktzioaren bolumena bolumen-teklarekin

- Musika erreproduktzerakoan edo bideoak ikusterakoan, sakatu bolumen-tekla gora edo behera.

Telefonoa isilik ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua**.
- 3 Hautatu **Isilik modua** eta, ondoren, hautatu **Isilarazi**.

Telefonoa dardara egiteko moduan ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua**.
- 3 Hautatu **Isilik modua** eta, ondoren, hautatu **Egin dardara**.

Telefonoa dardara eta soinua egiteko moduan ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua**.
- 3 Hautatu **Isilik modua** eta, ondoren, hautatu **Desaktibatuta**.
- 4 Markatu **Egin dardara tonua jotzean** kontrol-laukia.

Hobetu bozgorailuaren ozentasuna

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua**.
- 3 Markatu **xLOUD™** kontrol-laukia.


Ordua eta data

Telefonoko data eta ordua alda ditzakezu.


Data eskuz ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Ordua eta data**.
- 3 Desmarkatu **Data eta ordu automatikoak** kontrol-laukia, markatuta badago.
- 4 Punteatu **Ezarri data**.
- 5 Doitu data gora eta behera mugituz.
- 6 Punteatu **Ezarri**.

Ordua eskuz ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Ordua eta data**.
- 3 Desmarkatu **Data eta ordu automatikoak** kontrol laukia, markatuta badago.
- 4 Punteatu **Ezarri ordua**.
- 5 Korritu gora edo behera ordua eta minutua doitzeko.
- 6 Behar bada, korritu **AM** adierazlea **PM** adierazlera aldatzeko, eta alderantziz.
- 7 Punteatu **Ezarri**.

Ezarri ordu-zona


- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Ordua eta data**.
- 3 Desmarkatu **Ordu zona automatikoa** kontrol-laukia, markatuta badago.
- 4 Punteatu **Hautatu ordu zona**.
- 5 Hautatu aukera bat.

Data-formatua ezartzeko


- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Ordua eta data > Hautatu data formatua**.
- 3 Hautatu aukera bat.

Tonuen ezarpenak


Ezarri dei-tonuak

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua > Telefonoaren tonua**.
- 3 Hautatu tonu bat.
- 4 Punteatu **Eginda**.

Ukipen tonuak gaitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua**.
- 3 Markatu **Markatze teklen ukipen tonuak** eta **Ukipen soinuak** kontrol laukiak.


Jakinarazpen-tonuak hautatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua > Jakinarazpen lehenetsia**.
- 3 Hautatu dei tonu bat.
- 4 Punteatu **Eginda**.

Pantailaren ezarpenak

Pantailaren argitasuna doitzea




- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Pantaila > Argitasuna**.
- 3 Arrastatu graduatzailea argitasuna doitzeko.
- 4 Punteatu **Ados**.

-  Argitasun mailak bateriaren errendimenduan eragingo du. Bateriaren errendimendua hobetzeko aholkuak eskuratzeko, ikus *Bateriaren errendimendua hobetzea* orrialdea.


Pantaila dardara egin dezan ezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Soinua**.
- 3 Markatu **Egin dardara ukitzean** kontrol-laukia. Tekla leunak eta zenbait aplikazio punteatzen dituzunean, pantailak dardara egingo du.

Pantaila itzali aurretik gailua inaktibo egon beharreko denbora doitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Pantaila > Lo**.
 - 3 Hautatu aukera bat.
-  Pantaila bizkor itzaltzeko, sakatu labur pizteko tekla .





Pantaila aktibatuta mantentzeko telefonoa kargatu bitartean

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Garatzaileentzako aukerak**.
- 3 Markatu **Jarraitu esna** kontrol-laukia.

Telefonoaren hizkuntza

Telefonoan erabili nahi duzun hizkuntza hauta dezakezu.

Telefonoaren hizkuntza aldatzeko




- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Hizkuntza**.
 - 3 Hautatu aukera bat.
-  Hizkuntza okerra hautatzen baduzu eta ezin baduzu menuko testua ulertu, bilatu eta punteatu **Ezarpenak** ikonoa . Orduan, hautatu  aukeraren alboko sarrera eta hautatu hurrengo menuko lehen sarrera. Hemen, nahi duzun hizkuntza hauta dezakezu.

Hegaldi modua

Hegaldi moduan, telefonoaren sare eta irrati igorle/hartzaileak desaktibatzen dira ekipamendu sentikorrean eragina izatea saihesteko. Alabaina, bien bitartean jokoetan jolasten, musika entzuten, bideoak eta beste bideo batzuk ikusten jarrai dezakezu, baldin eta eduki hori guztia memoria txartelean edo barneko memorian gordeta badago. Alarmen bidez ere jakinarazpenak jasotzen jarrai dezakezu, alarmak aktibatuta badaude.

-  Hegaldi modua aktibatuz gero, bateria gutxiago gastatzen da.

Hegaldi kanpoko modua aktibatzeko



- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Gehiago....**
 - 3 Markatu **Hegaldi modua** kontrol-laukia.
-  **Telefonoaren aukerak** menuko **Hegaldi modua** ere hauta dezakezu. **Telefonoaren aukerak** menua atzitzeko, eduki sakatuta pizteko eta itzaltzeko tekla .

Memoria

Edukia memoria txartelean, telefonoko barneko memorian eta telefonoaren memorian gorde dezakezu. Musika, bideoak eta argazkiak barneko memorian edo memoria txartelean gordetzen dira, eta aplikazioak, kontaktuak eta mezuak telefonoaren memorian.

-  Aplikazio batzuk telefonoaren memoriatik barneko memoriara eraman ditzakezu.

Aplikazio bat telefonoaren barne memoriara mugitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Aplikazioak**.
 - 3 Hautatu barne memoriara mugitu nahi duzun aplikazioa.
 - 4 Punteatu **Mugitu barneko biltegiara**.
-  Aplikazio batzuk ezin dira telefonoaren memoriatik barne memoriara mugitu.

Memoria txartela

-  Baliteke aparteko memoria txartel bat erosi behar izatea.

Telefonoak microSD™ memoria txartela onartzen du, multimedia edukirako erabiltzen dena. Txartel mota hori memoria txartel eramangarri gisa ere erabil daiteke beste gailu bateragarrietan.

Memoria txartela formateatzea

Telefonoko memoria txartela formatea dezakezu, adibidez, memorian tokia egiteko. Ondorioz, txarteleko datu guztiak ezabatuko dituzu.

- ! Memoria txarteleko eduki guztia ezabatzen da formateatzen duzunean. Memoria txartela formateatu aurretik, ziurtatu gorde nahi dituzun datu guztien babeskopia egingo duzula. Edukiaren babeskopia egiteko, edukia ordenagailuan kopia dezakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, joan *Telefonoa ordenagailura konektatu* kapituluko 92. orrialdera.

Memoria-txartela formateatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak** > **Biltegia** > **Desmuntatu SD txartela**.
- 3 Memoria-txartela desmuntatu ondoren, punteatu **Ezabatu SD txartela**.

Telefonoarekin entzungailua erabiltzea



- ! Funtzionamendua ahalik eta onena izan dadin, erabili telefonoarekin eskuratutako osagarriak edo bestelako osagarri bateragarriak.

Erabili entzungailua

- 1 Konektatu entzungailua telefonora.
- 2 Deiar erantzuteko, sakatu dei-tekla.
- 3 Deia amaitzeko, sakatu deia kudeatzeko tekla.

- ! Telefonoak entzugailurik z badakar, bereizita eros dezakezu.


- 💡 Musika entzuten ari bazara, musika gelditu egingo da dei bat erantzuten duzunean eta berrekin egingo dio deia amaitzen duzunean.

Interneteko eta mezularitzako ezarpenak


SMSak eta MMSak bidaltzeko, eta Internetera sartzeko, 2G/3G datu konexio mugikorra eta ezarpen zuzenak izan behar dituzu. Ezarpen horiek lortzeko hainbat modu daude:

- Telefono mugikorren sare eta operadore gehienek kasuan, Interneteko eta mezularitzako ezarpenak telefonoak aldeztu aurretik instalatuta datoz. Hala bada, Internet erabiltzen eta mezuak bidaltzen has zaitezke.
- Zenbait kasutan, Interneteko eta mezularitzako ezarpenak deskargatzeko aukera emango zaizu telefonoa pizten duzun lehen aldian. Halaber, ezarpen horiek geroago deskarga daitezke **Ezarpenak** menuan.
- Telefonoaren Interneteko eta sareko ezarpenak noiznahi eskuz alda ditzakezu. Jarri harremanetan sareko operadorearekin Interneteko eta mezularitzako ezarpenei buruzko informazio xehatua lortzeko.





Interneteko eta mezularitzako ezarpenak deskargatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Xperia™ > Internet ezarpenak**.



Ikusi uneko sarbide-puntuaren izena (APN)

- 1 **Hasierako pantaila** pantailan, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Gehiago... > Sare mugikorrek**.
 - 3 Punteatu **Sarbide puntuen izenak**.
- ! Konexio erabilgarri bat baino gehiago badituzu, sare konexio aktiboa markatutako botoi batez adieraziko da.

Konfiguratu APN ezarpenak eskuz

- 1 **Hasierako pantaila** pantailan, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Gehiago... > Sare mugikorrek**.
 - 3 Punteatu **Sarbide puntuen izenak** eta, ondoren, sakatu .
 - 4 Punteatu **APN berria**.
 - 5 Punteatu **Izena** eta sartu sortu nahi duzun sare-profilaren izena.
 - 6 Punteatu **APN** eta sartu sarbide-puntuaren izena.
 - 7 Sartu sare-operadoreak eskatutako gainerako informazioa.
 - 8 Sakatu  eta punteatu **Gorde** .
- ! Sareko ezarpenei buruzko informazio xehatua lortzeko, jarri sare-operadorearekin harremanetan.

Interneteko ezarpen lehenetsiak berrezartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Gehiago... > Sare mugikorrek**.
- 3 Punteatu **Sarbide puntuen izenak** eta, ondoren, sakatu .
- 4 Punteatu **Berrezarri lehenetsiak**.

Datu erabilera kontrolatzea




Jakin eta kontrolatu denbora jakin batean telefonotik eta telefonora transferitutako datuen kopurua. Adibidez, datu erabileraren abisuak eta telefonoarentzako mugak ezar ditzakezu kostu gehigarriak saihesteko. Banakako aplikazioek erabilitako datu kopurua ere muga dezakezu.

- ! Datu erabileraren ezarpena doituz, datu erabileraren gainean kontrol handiagoa izan dezakezu, baina ezingo duzu kostu gehigarriak saihestea bermatu.


Datu erabilera ezarpenetara sartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Datu erabilera**.


Datu trafikoa aktibatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Datu erabilera**.
 - 3 Datu mugikorren sareko konexioa aktibatu gabe badago, punteatu **Sare mugikorrek datuak** atalaren alboko   aukerara alda dadin.
- ☀ Bestela, **Ezarpenak > Gehiago... > Sare mugikorrek** aukerako **Datu trafikoa** kontrol laukia markatuta ere aktiba dezakezu datu trafikoa.


- 4 Guztiei erantzuteko, ukitu ; ondoren, ukitu **Erantzun guztiei**.
- 5 Idatzi erantzuna eta punteatu .







Mezu elektronikoak birbidaltzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu . Zure posta elektroniko lehenetsiaren sarrerako ontzia azalduko da. Telefonoan duzun beste kontu elektroniko bat begiratu nahi baduzu, ukitu  duen barra eta, ondoren, hautatu zer kontu begiratu nahi duzun.
- 3 Bilatu eta ukitu birbidali nahi duzun mezua.
- 4 Sakatu  eta, ondoren, sakatu **Aurrera**.
- 5 Punteatu **Hartzailea** eta idatzi hartzailearen helbidea.
- 6 Idatzi testu-mezua eta, ondoren, ukitu .







Ezabatu mezu elektronikoak

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu . Zure posta elektroniko lehenetsiaren sarrerako ontzia azalduko da. Telefonoan duzun beste kontu elektroniko bat begiratu nahi baduzu, ukitu  duen barra eta, ondoren, hautatu zer kontu begiratu nahi duzun.
- 3 Posta elektronikoaren sarrerako ontzian, markatu ezabatu nahi duzun mezua kontrol laukia eta, ondoren, punteatu .

Irakurritako mezu elektronikoak irakurri gabeko gisa markatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu . Zure posta elektroniko lehenetsiaren sarrerako ontzia azalduko da. Telefonoan duzun beste kontu elektroniko bat begiratu nahi baduzu, ukitu  duen barra eta, ondoren, hautatu zer kontu begiratu nahi duzun.
 - 3 Markatu nahi duzun mezu elektronikoari dagokion kontrol-laukiak eta, ondoren, ukitu .
-  Irakurri gabeko mezu elektroniko bat irakurri gisa markatzeko, markatu dagokion kontrol-laukia eta, ondoren, ukitu .




Jarri izartxoak mezu elektronikoei

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu . Zure posta elektroniko lehenetsiaren sarrerako ontzia azalduko da. Telefonoan duzun beste kontu elektroniko bat begiratu nahi baduzu, ukitu  duen barra eta, ondoren, hautatu zer kontu begiratu nahi duzun.
 - 3 Markatu izartxoa jarri nahi diozun mezu elektronikoa eta, ondoren, ukitu .
-  Mezu elektroniko bati izartxoa kentzeko, markatu eta, ondoren, ukitu .





Izartxodun mezu elektroniko guztiak ikusteko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu  eta, ondoren, punteatu .
- 2 Sakatu  eta, ondoren, sakatu **Izardunak**. Zure kontu elektroniko guztietako izartxodun mezua zerrenda batean azalduko dira.




Posta elektronikoak sortatan kudeatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu  eta, ondoren, punteatu . Zure posta elektroniko lehenetsiaren sarrerako ontzia azalduko da. Telefonoan duzun beste kontu elektroniko bat begiratu nahi baduzu, ukitu  duen barra eta, ondoren, hautatu zer kontu begiratu nahi duzun.
- 2 Markatu hautatu nahi dituzun mezu elektronikoaren kontrol-laukiak.
- 3 Amaitutakoan, ukitu tresna-barrako ikonoetako bat, esaterako, hautatutako mezu elektronikoak beste karpeta batera eramateko.

Kontu elektroniko bateko karpeta guztiak ikusteko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu  eta, ondoren, punteatu . Zure posta elektroniko lehenetsiaren sarrerako ontzia azalduko da. Telefonoan duzun beste kontu elektroniko bat begiratu nahi baduzu, ukitu  duen barra eta, ondoren, hautatu zer kontu begiratu nahi duzun.
- 2 Ukitu  kontuko karpeta guztiak ikusteko.

Sarrerako ontzia egiaztatzeko maiztasuna aldatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu .
- 3 Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Ezarpenak**.
- 4 Posta elektronikoko kontu bat baino gehiago erabiltzen badituzu, punteatu doitu nahi duzun kontua.
- 5 Punteatu **Sarr. ontziaren maiztasuna** eta hautatu aukera bat.


Musika erreproduzizailea

Musikari buruz

Atera ahalik eta etekinik handiena musika erreproduzizaileari. Entzun eta antolatu ordenagailutik memoria txartelera transferitu edo lineako dendetan erosi eta bertatik deskargatu dituzun musika, audio liburuak eta podcastak.

Edukia musika erreproduzizailean erabilgarri jartzeko, Media Go™ aplikazioa erabil dezakezu. Media Go™ aplikazioak musika edukia ordenagailutik telefonora transferitzen laguntzen dizu. Informazio gehiago lortzeko, ikus *Telefonoa ordenagailura konektatu* atala 92. orrialdean.

Musika erreproduzizailearen ikuspegi orokorra



- 1 Arakatu memoria txarteleko musika
- 2 Bilatu telefonoaren barne biltegian gordetako pista guztiak
- 3 Punteatu infinitu botoia lotutako lineako informazioa eta plugin-ak Google Play™ zerbitzuan
- 4 Albumaren azala (erabilgarri badago)
- 5 Joan uneko erreprodukzio ilarako hurrengo pista, edo aurreratu uneko abestia
- 6 Pistaren luzera denbora totala
- 7 Uneko pistan igarotako denbora
- 8 Progresio adierazlea – arrastatu adierazlea edo punteatu lerroan zehar azkar aurreratu edo atzeratzeko
- 9 Erreproduzitu/Pausatu botoia
- 10 Joan uneko erreprodukzio ilarako aurreko pista, edo atzeratu uneko abestia



Multimedia fitxategiak kopiatzea memoria txartelean

Zure ordenagailuko media eduki gogokoenak telefonoan kopiatu eta zure telefonoaren eginbide entretenigarri guztiak erabiltzen hasi. Erraza da musika, argazkiak bideoak eta bestelako fitxategiak transferitzea. Besterik gabe, konektatu telefonoa ordenagailura USB kalbea erabilita edo ordenagailuko fitxategiak kudeatzeko edo Media Go™ aplikazioa erabili zure fitxategiak transferitzeko.



Ikus *Telefonoa ordenagailura konektatu* atala 92 orrialdea telefonoa ordenagailuari konektatzearen eta fitxategiak transferitzearen inguruko informazio gehiago lortzeko.

Erabili musika-erreproduzigailua

Audio edukia erreproduzitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu  eta, ondoren, bilatu eta punteatu .
- 2 Punteatu **NIRE MUSIKA** musika liburutegia irekitzeko.
- 3 Hautatu musika kategoria bat eta arakatu ireki nahi duzun pista.
- 4 Punteatu pista bat hura erreproduzitzeko.



Pistak aldatzeko

- Pista bat erreproduzitzen ari denean, punteatu  edo .
- Pista bat erreproduzitzen ari denean, irristatu albumaren azala ezkerrera edo eskuinera.

Pausatu pistak

- Musika erreproduzitzailan, punteatu .



Musika azkar aurreratzeko eta atzeratzeko

- Musika erreproduzitzailan, eduki ukituta  edo .
- 💡 Era berean, aurrerapen-adierazlearen markatzailea ezkerrera edo eskuinera arrasta dezakezu.


Audioaren bolumena doitzeko

- Musika erreproduzitzaila pista bat erreproduzitzen ari denean, sakatu bolumen tekla.


Soinuaren kalitatea ekualizadorea erabiliz hobetzeko

- 1 Musika erreproduzitzaila irekita dagoenean, sakatu .
- 2 Punteatu **Soinuaren hobekuntzak**.
- 3 Soinua eskuz doitu nahi baduzu, arrastatu frekuentzia bandaren botoiak gora eta behera. Soinua automatikoki doitzea nahiago baduzu, punteatu  eta hautatu estilo bat.



Soinu ingurutzaila aktibatzeko

- 1 Musika erreproduzitzaila irekita dagoenean, sakatu .
- 2 Punteatu **Soinuaren hobekuntzak** > ▼ > **Gehiago** > **Aurikularren surround soinua**.
- 3 Hautatu ezarpen bat.
- 4 Punteatu **Ados**.



Momentuko erreprodukzio ilara ikusteko

- Pista bat musika erreproduzitzailan erreproduzitzen ari den bitartean, punteatu albumaren azala eta punteatu .

Musika erreproduzitzaila minimizatzeke

- Musika erreproduzitzaila martxan dagoenean, sakatu  joan aurreko pantailara itzultzeko, edo sakatu  **Hasierako pantaila**-ra joateko. Musika erreproduzitzaila atzealdean geldituko da erreproduzitzen.

Musika erreproduzitzailera atzeko planoan erreproduzitzen ari denean itzultzeko

- 1 Pista bat atzeko planoan erreproduzitzen ari denean, arrastatu egoera barra beherantz Jakinarazpen panela irekitzeko.
- 2 Punteatu pistaren izenburua musika erreproduzitzaila irekitzeko.
- 💡 Bestela, sakatu eta sakatuta eduki  eta gero punteatu  musika erreproduzitzailura itzultzeko.

Abestiak ezabatzeko

- 1 Ireki musika erreproduzitzailearen liburutegia eta arakatu ezabatu nahi dituzun pistak.
 - 2 Eduki ukituta pistaren izenburua. Ondoren, punteatu **Ezabatu**.
- 💡 Albumak ere modu berean ezaba ditzakezu.

Pistak partekatzeko

- 1 Abestiak musika erreproduzitzailearen liburutegian arakatzean, eduki ukituta abestiaren izena.
 - 2 Punteatu **Bidali**.
 - 3 Hautatu erabilgarri dauden transferentzia-metodoetako bat, eta jarraitu pantailako argibideak.
- 💡 Albumak eta erreprodukzio zerrendak ere modu berean parteka ditzakezu.
- ! Agian ezingo dituzu copyright bidez babestutako elementuak kopiatu, bidali, edo transferitu.

Pista bat gomendatzeko Facebook™-en

- 1 Pista bat musika erreproduzitzailean erreproduzitzen ari den bitartean, punteatu albumaren azala.
- 2 Punteatu  Facebook™-en pista "Atsegin" duzula erakusteko. Nahi baduzu, zerbait idatzi komentarioen eremuan.
- 3 Punteatu **Partekatu** pista Facebook™-era bidaltzeko. Pista ongi jaso bada, Facebook™-eko konfirmazio-mezua iritsiko zaizu.

Erlazionaturiko audio edukia aurkitu

Musika erreproduzigailuan, entzuten ari zaren artista bati erlazionatutako audio-edukia aurki dezakezu infinitu botoia sakatuta .

Artista jakin bati lotutako audio edua ere bila dezakezu musika erreproduzitzailea arakatzen ari zaren bitartean. Musika erreproduzitzaileak emaitza mota hauek bilatu eta zerrendatzen ditu:

- Musika bideoak YouTube™-n
- Artistaren informazioa Wikipedia-n
- Abestien letrak Google-n
- Karaokerako bideoak YouTube™-n
- Hedapen bilaketak webean
- Playnow™ zerbitzuko edukia

Infinitu botoia erabiliz erlazionatutako edukia bilatzeko

- Pista bat musika erreproduzitzailean erreproduzitzen denean, punteatu .

Pistak antolatzeko Nire musika erabiltzea

Punteatu musika erreproduzitzaileko nire musika fitxa telefonoaren memoria txartelean gordetako pista guztien ikuspegi orokorra eskuratzeko. Nire musika fitxan albumak eta erreprodukzio zerrendak kudeatu eta musika aldartearen eta tempoaren arabera ordenatu dezakezu.

Nire musikaren ikuspegi orokorra



- 1 Itzuli uneko pistara musika pistan
- 2 Une honetan erreproduzitzen ari den argazkia (erabilgarri badago)
- 3 Arakatu zure musika artistaren arabera
- 4 Jarri zure musika kategoriaka SensMe™ kateak erabiliz
- 5 Kudeatu eta editatu zure musika Music Unlimited™ erabiliz
- 6 Arakatu zure erreprodukzio zerrenda gogokoak
- 7 Bildu zuk eat zure lagunek lineako zerbitzuak erabiliz partekatutako musikarako eta musikarekin lotutako edukirako estekak
- 8 Arakatu erreprodukzio zerrenda guztiak
- 9 Arakatu audioa pisten arabera
- 10 Arakatu albumen arabera

Musika pista bat laster tekla gisa gehitzeko

- 1 Musika erreproduzitzaillean, punteatu **NIRE MUSIKA**.
- 2 Punteatu , , edo eta nabigatu laster tekla gisa gorde nahi duzun pista.
- 3 Eduki ukituta pistaren izenburua.
- 4 Punteatu **Gehitu lasterbide gisa**. Laster tekla Nire musikako ikuspegi nagusian agertuko da orain.


Laster tekla berrantolatzeko


- 1 Musika erreproduzitzaillean, punteatu **NIRE MUSIKA**.
- 2 Eduki ukituta laster tekla bat handitu eta telefonoak dardara egin arte. Orduan, arrastatu elementua kokapen berrira.

Laster teklak ezabatzeko

- 1 Musika erreproduzitzaillean, punteatu **NIRE MUSIKA**.
 - 2 Eduki ukituta laster tekla bat handitu eta telefonoak dardara egin arte. Orduan, arrastatu elementua karpetara.
- ! Ezin dituzu fitxa hauek ezabatu: **Pistak, Albumak, Artistak, Zerrendak, Music Unlimited, Lagunen musika eta SensMe™ channels**.

Musika informazio berrienarekin eguneratzeko



- 1 Musika erreproduzitzailan, punteatu **NIRE MUSIKA** eta, ondoren, sakatu .
- 2 Punteatu **Deskargatu informazioa** > **Hasi**. Telefonoak linean bilatzen du eta erabilgarri dagoen albumaren azal eta pista informazio berriena deskargatzen du zure musikarentzako.

 SensMe™ kateen aplikazioa aktibatu egiten da musikari buruzko informazioa deskargatzen duzunean.

SensMe™ channels erabiliz musika kategoriaka sailkatzea

SensMe™ kateen aplikazioak musika aldaterearen eta tempoaren bidez antolatzen laguntzen dizu. SensMe™ aplikazioak pista guztiak hamabi kategoriatan, edo kateetan, taldekatzen ditu, zure aldaterearekin bat datorren edo eguneko ordurako egokia den musika hauta dezakezu.




SensMe™ channels aplikazioa gaitzeko

- 1 Musika erreproduzitzailan, punteatu **NIRE MUSIKA**.
 - 2 Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Deskargatu informazioa**.
-  Aplikazio honek sare mugikorreko edo Wi-Fi® sareko konexioa behar du.


Erreproduzitu musika ausaz

Erreproduzio-zerrendetako pistaz ausaz erreproduzi ditzakezu. Besteak beste, zuk sortutako erreproduzio-zerrendak edo deskargatutako albumak erreproduzi ditzakezu ausaz.

Pistak ausaz erreproduzitzeko

- 1 Musika erreproduzitzailan, punteatu **NIRE MUSIKA**.
- 2 Punteatu  eta nabigatu album batera, edo punteatu  eta arakatu erreproduzio zerrenda bat.
- 3 Ireki albuma edo erreproduzio zerrenda bere izena punteatuta.
- 4 Punteatu  **Ausazko errep. modua** aktibatzen.

Erreproduzio zerrendak

Musika erreproduzitzailak erreproduzio zerrenda dinamikoa sortzen ditu audio liburutegiko erreproduzio zerrenden fitxan . Zure erreproduzio zerrenda sor dezakezu zure memoria txartelean gordetako musikarekin.

Gainera, ordenagailuan Media Go™ aplikazioa instalatu eta ordenagailutik telefonoko memoria txartelean erreproduzio zerrendak kopiatzeko erabil dezakezu. Informazio gehiago lortzeko, ikus *Telefonoa ordenagailura konektatu*. orrialdea 92.


Zeure erreproduzio zerrendak sortzeko

- 1 Musika erreproduzitzailan, punteatu **NIRE MUSIKA**.
- 2 Artista, album edo pista bat erreproduzio zerrendan gehitzeko, eduki ukituta artistaren izena edo albumaren edo pistaren izenburua.
- 3 Irekitzen den menuan, punteatu **Gehitu zerrendan** > **Sortu zerrenda**.
- 4 Sartu izen bat erreproduzio zerrendarentzat eta punteatu **Ados**.

Pistak erreproduzio zerrenda batean gehitzeko

- 1 Musika erreproduzitzailaren liburutegia arakatzean, eduki ukituta gehitu nahi duzun artistaren izena edo albumaren edo pistaren izenburua.
- 2 Punteatu **Gehitu zerrendan**.
- 3 Punteatu artista, albuma edo pista gehitu nahi duzun erreproduzio zerrenda. Artista, albuma edo pista erreproduzio zerrendan gehituko da.

Zure erreprodukzio zerrendak erreproduzitzeko

- 1 Musika erreproduzizailean, punteatu **NIRE MUSIKA**.
- 2 Punteatu .
- 3 **Zerrendak** atalean, sakatu erreprodukzio zerrenda bat.
- 4 Punteatu pista bat hura erreproduzitzeko.

Pistak erreprodukzio zerrendatik kentzeko

- 1 Erreprodukzio zerrendan, eduki ukituta ezabatu nahi duzun pistaren izenburua.
- 2 Punteatu **Ezabatu zerrendatik**.



Ezabatu erreprodukzio-zerrendak

- 1 Musika-erreproduzigailuan, punteatu **NIRE MUSIKA** eta, ondoren, hautatu **Zerrendak**.
 - 2 Eduki ukituta ezabatu nahi duzun erreprodukzio-zerrenda.
 - 3 Punteatu **Ezabatu**.
 - 4 Punteatu **Ezabatu** berriro, berresteko.
- ! Ezingo duzu lehenetsitako erreprodukzio zerrenda ezabatu.

Musika-erreproduzizailearen widget-a

Musika-erreproduzizailearen widget-a **Hasierako pantaila** ataletik musika-erreproduzitzailerako zuzeneko sarbidea eskaintzen duen aplikazio ñimiñoa da. Widget hori gehitu behar duzu **Hasierako pantaila** atalean erabili ahal izan aurretik.



Musika erreproduzizailearen widgeta zure pantaila nagusian jartzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, sakatu .
- 2 Punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Musika erre..**

Zure entzumena zaintzea

Musika erreproduzizailea edo beste multimedia erreproduzizaile batzuk denbora luzez altuegi entzuteak zure entzumena kaltetu dezake, baita bolumena oso altua ez bada ere. Halako arriskuak jakinarazteko, bolumen mailari buruzko abisua agertuko da bolumena altuegia denean eta musika erreproduzizailea 20 orduz baino gehiagoz erabiltzen denean.

Bolumen teklaren abisua desaktibatzeko

-  agertzen denean, punteatu **Ados**, abisua ixteko.
-  Telefonoa berrabiarazten duzun bakoitzean, multimedia bolumena automatikoki maila ertain gisa zehaztuko da.


TrackID teknologia

TrackID teknologia erabiliz musika identifikatzea



Erabili TrackID™ musika hautemateko zerbitzua inguruan entzuten dituzun abestiak identifikatzeko. Grabatu abesti baten lagin labur bat eta artistari, izenburuari eta albumari buruzko informazioa eskuratuko duzu segundo gutxi batzuren buruan. TrackID™ teknologiak identifikatutako pistak erosi ditzakezu eta TrackID zerrendak ikus ditzakezu mundu guztiko TrackID erabiltzaileek zer bilatzen duten ikusteko. Eraitza hobeak lortzeko, erabili TrackID™ teknologia leku lasai batean.

- ! TrackID™ aplikazioa eta TrackID™ zerbitzua ez dira onartzen herrialde edo eskualde guztietan, eta ez dira eremu guztietako sare eta zerbitzu hornitzaile guztiekin bateragarriak.


TrackID™ aplikazioa irekitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **TrackID™**.
- 💡 TrackID™ widgea ere erabil dezakezu **TrackID™** aplikazioa irekitzeko.

TrackID™ erabiliz pistaren informazioa bilatzeko

- 1 **TrackID™** aplikazioa irekita dagoenean, mantendu telefonoa musika datorren lekura begira.
 - 2 Punteatu . TrackID™ zerbitzuak pista ezagutzen badu, emaitza pantailan agertuko da.
- 💡 **TrackID™** aplikazioaren hasierako pantailara itzultzeko, sakatu .

TrackID™ zerrendak ikusteko

- 1 **TrackID™** aplikazioa irekita dagoela, sakatu **Zerrendak**. Grafiko bat ikusten duzun lehen aldian, zure eskualdean ezarriko da.
- 2 Beste herrialde batzuetako bilaketa ezagunagoen grafikoak ikusteko, punteatu  > **Lurraldeak**.
- 3 Hautatu herrialde edo lurralde bat.

Erabili TrackID™ teknologiaren emaitzak

Pistari buruzko informazioa TrackID™ aplikazioak pista bat ezagutzen duenean azaltzen da. Pista erostea edo posta elektronikoa edo SMS bidez partekatzea hauta dezakezu. Pistaren artistari buruzko informazio gehiago ere eskura dezakezu.

Pistak TrackID™ teknologia erabiliz erosteko

- 1 **TrackID™** aplikazioa irekita dagoela, punteatu pistaren izenburua.
 - 2 Pistaren informazio pantailan, punteatu **Deskarga**.
 - 3 Jarraitu telefonoko jarraibideak erosten amaitzeko.
- ! Baliteke pistak erosteko eginbidea herrialde/eskualde guztietan onartuta ez egotea, edota sare edo zerbitzu hornitzaile guztiek ez onartzea ere.

Pista bat partekatzea posta elektronikoa edo SMS bidez

- 1 **TrackID™** aplikazioa irekita dagoela, punteatu pistaren izenburua.
- 2 Punteatu **Partekatu** eta hautatu partekatzeko metodoa.
- 3 Jarraitu telefonoko jarraibideak prozedura amaitzeko.

Pista batean, artistari buruzko informazioa ikusteko

- 1 **TrackID™** aplikazioa irekita dagoela, punteatu pistaren izenburua.
- 2 Punteatu **Artistaren info..**

Pista bat historiatik erreproduzitzeko

- 1 **TrackID™** aplikazioa irekita dagoela, sakatu **Historia**.
- 2 Punteatu pistaren titulua eta punteatu **Ezabatu**.
- 3 Punteatu **Bai**.

PlayNow™ zerbitzua

PlayNow™ zerbitzuari buruz

PlayNow™ zerbitzua erabil dezakezu aplikazioak, musika, jokoak, dei tonuak eta horma paperak deskargatzeko. PlayNow™ zerbitzuak doako zein ordaindu beharreko deskargak eskaintzen ditu. Kontuan izan doan ez diren aplikazioen prezioa herrialdearen arabera alda daitekeela.

- 💡 PlayNow™ zerbitzua ez dago erabilgarri herrialde guztietan.

PlayNow™ abiarazteko


- 1 **Hasierako pantaila** pantailan, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu .

Edukiak deskargatu aurretik

Deskargatu aurretik, ziurtatu Interneteko konexioa duzula. Halaber, baliteke memoria txartela telefonoan sartuta izan behar izatea edukia deskargatzeko.

- ! Edukia telefonora deskargatzean, transferitzen den datu kopuruarengatik ordaindu beharko duzu. Jarri harremanetan operadorearekin zure herrialdeko datu transferentzien kostuei buruzko informazioa lortzeko.

Deskargatu PlayNow elementuak telefonora

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **PlayNow™**.
- 3 Bilatu deskargatu nahi duzun elementua kategoriak arakatuta edo bilaketa-funtzioa erabilita.
- 4 Punteatu elementua xehetasunak ikusteko.
- 5 Sakatu "Erosi orain!" erosketa-prozesuari ekiteko. Erosketa balidatu ondoren, edukia deskargatzen has zaitezke.



FM irratia

FM irratiri buruz

Telefonoko FM irratia beste edozein FM irratik bezala funtzionatzen du. FM irratia kateak araka eta entzun ditzakezu, eta gogoko gisa gorde ditzakezu, adibidez. Irratia erabili aurretik, haridun entzungailua konektatu behar dizkiozu telefonoari. Izan ere, entzungailuek antena gisa funtzionatzen dute. Gailu horietako bat konektatzean, nahi baduzu, telefonoaren bozgorailura eraman dezakezu irratia erabiltzeko.

- 💡 FM irratia irekitzen duzunean, kate erabilgarriak agertzen dira automatikoki. Kateak RDS informazioa badu, katea entzuten hasi eta segundo gutxira bistaratzen da.

FM irratia abiarazteko


- 1 Konektatu entzungailua edo aurikularrak telefonora.
 - 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, ukitu .
 - 3 Bilatu eta punteatu **FM irratia** . Kate erabilgarriak agertzen dira frekuentzia bandan zehar mugitu ahala.
- ! FM irratia abiarazten duzunean, kate erabilgarriak agertzen dira automatikoki. Kateak RDS informazioa badu, katea entzuten hasi eta segundo gutxira bistaratzen da.

Aldatu irratia-kate batetik bestera

Frekuentzia-banda bereko kate batetik bestera aldatzeko:

- Mugitu gora eta behera.
- Arrastatu.
- Sakatu katea edo, erabilgarri badago, RDS informazioa (kate-identifikazioa).

FM irratia ikuspegi orokorra



- 1 Mugitu gora aurreko gogokoa ikusteko (gogokoak gordeta badaude soilik erabilgarri)
- 2 Sintonizatutako frekuentzia
- 3 Gorde edo kendu gogoko kateak
- 4 Mugitu behera hurrengo gogokora (gogokoak gordeta badaude soilik erabilgarri)
- 5 Gordetako gogoko kate bat
- 6 Irratia pizteko eta itzaltzeko tekla
- 7 RDS (Radio Data System) informazioa – ez dago erabilgarri herrialde/eskualde guztientzat
- 8 Ireki TrackID™ aplikazioa

Erabili gogoko irratikateak

Gehien entzuten dituzun irratikateak gogoko gisa gorde ditzakezu. Gogokoak erabilia irratikateak bizkor eskura ditzakezu.

Gorde kateak gogoko gisa

- 1 Irratia irekita dagoela, nabigatu gogoko gisa gorde nahi duzun katera.
- 2 Sakatu ★.

Gogoko kateak kentzeko

- 1 Irratia irekita dagoela, nabigatu gogokoen zerrendatik kendu nahi duzun katera.
- 2 Punteatu ☆.

Mugitu gogoko kate batetik bestera

- Irratia irekita dagoela, sakatu ⤴ edo ⤵.
- ! Gogoko batetik bestera aldatzeko, gutxienez bi kate izan behar dituzu gogoko gisa gordeta.

Bilatu irratikate gehiago

Kokapenez aldatu baduzu edo uneko kokapeneko estaldura hobetu bada, irratikate gehiago bila ditzakezu.

- ! Bilaketa berriak ez die gorde dituzun gogokoei eragiten.

Irrati kateen bilaketa berri bat hasteko

- 1 Irratia irekita dagoela, sakatu ☰.
- 2 Punteatu **Bilatu kanalak**. Irratiak frekuentzia banda osoan egiten du bilaketa, eta kate erabilgarriak bistaritzen dira.

Soinu ezarpenak

Aldatu bozgorailutik eskulibrera eta alderantziz

Irratia entzuteko eskulibre eramangarria, entzungailua, edo telefonoaren bozgorailua erabili nahi duzun aukera dezakezu.

Aldatu bozgorailuaren eta entzungailuaren artean

- 1 Irratia irekita dagoela, sakatu ☰.
- 2 Sakatu **Errepr. bozgorailuan**.
- 3 Soinua berriro eskulibre eramangarriaren edo entzungailuaren bidez entzuteko, sakatu ☰ eta sakatu **Errepr. aurikularretan**.

Irratiko pisten identifikazioa TrackID™-rekin

Erabili **TrackID™** teknologia zure telefonoan erreproduzitzen ari diren FM irratiko musika pistak identifikatzeko.

FM irratiko abesti bat identifikatu TrackID™ bitartez


- 1 Zure telefonoaren FM irradian abestia erreproduzitzen ari denean, punteatu 📷.
 - 2 Progresioaren adierazle bat agertuko da TrackID™ aplikazioak abestia aztertzen duen bitartean. Lortzen badu, pistaren emaitza ikusiko da, edo izan daitezkeen zerrenda.
 - 3 Sakatu ↶ FM irratiara itzultzeko.
- ! TrackID™ aplikazioa eta TrackID™ zerbitzua ez dira onartzen herrialde edo eskualde guztietan, eta ez dira eremu guztietako sare eta zerbitzu hornitzaile guztiekin bateragarriak.

Kamera

Kamerari buruz

Telefonoko kamerarekin, ohiko 2D argazkiak. Bidali argazkiak eta bideoak lagunei MMS gisa, edo karga itzazu web zerbitzu batean. Zure telefonoak aurrealdeko kamera bat ere badu eta erabilgarria da zeure buruari argazkiak ateratzeko.

Kameraren kontrolen ikuspegi orokorra



- 1 Handitu edo txikitu
- 2 Kamera nagusiaren pantaila
- 3 Aldatu argazki kameraren eta bideokameraren artean
- 4 Bistaratu ezarpen guztiak
- 5 Atera argazkiak edo grabatu bideoak
- 6 Itzuli aurreko urratsera edo irten kameratik
- 7 Ikusi argazkiak eta bideoak
- 8 Fokatze automatikoa
- 9 Aurrealdeko kamera
- 10 Kamera ezarpenen ikonoak

Kamera erabiltzeko aholkuak

Herenen erregela

Ez kokatu objektua markoaren erdian. Markoaren heren batean ezarrita emaitza hobea lortzen da.

Mantendu kamera geldirik

Ekidin argazki lausoak ateratzea, kamera geldirik mantenduta. Saiatu eskua geldirik mantentzen objektu solido baten aurka ezarrita.

Hurbildu

Objektutik ahalik eta gertuen ezarrita, objektuak bisore osoa har dezake.

Erabili aldaera desberdinak

Erabili angelu desberdinak eta hurbildu pixkanaka objektura. Atera argazki batzuk bertikalki. Probatu posizio desberdinak.

Erabili hondo soilak

Hondo soilak objektua nabarmentzen laguntzen dute.

Mantendu lentea garbi

Telefono mugikorrek edonolako toki eta eguraldi-baldintzetan erabiltzen dira, eta poltsikoan edo poltsan eramaten dira. Ondorioz, kameraren lentea zikindu egiten da eta hatz-markak izaten ditu. Erabili zapi leun bat lentea garbitzeko.

Kamera finakoarekin argazkiak ateratzea

Kamerarekin argazkiak ateratzeko bi modu daude. Pantailako kameraren botoia punteatu dezakezu edo pantailako puntu bat ukitu dezakezu.





Kamera irekitzeko

- Hasierako pantailan, punteatu  eta, ondoren, bilatu eta punteatu .




Itxi kamera

- Sakatu  kamera pantaila nagusitik.

Pantailako botoia punteatuta argazkiak ateratzeko

- 1 Aktibatu kamera.
- 2 Argazki kamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
- 3 Ezarpen guztiak bistaratzeko, sakatu .
- 4 Punteatu **Atzeratzeko metodoa** eta hautatu **Pantailako botoia**, oraindik hautatu gabe badago.
- 5 Jarri kamera gauzari begira.
- 6 Punteatu pantailako  botoia. Hatza altxa bezain laster ateratzen da argazkia.


Atera autorretratuak aurrealdeko kamera erabiliz

- 1 Aktibatu kamera.
- 2 Argazki kamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
- 3 Ukitu pantailaren goiko aldean, ezkerrean, dagoen ikonoa eta, ondoren, hautatu **Aurreko kamera**.
- 4 Ezarpen guztiak bistaratzeko, sakatu .
- 5 Argazkiak ateratzeko, ukitu pantaila. Hatza altxa bezain laster ateratzen da argazkia.


Erabili zooma

- Kamera irekita dagoela, sakatu bolumen-tekla gora edo behera handiagotzeko edo txikiagotzeko.
- ! Zooma ez dago erabilgarri argazki-bereizmen guztietan.


Erabili argazki-kameraren flasha

- 1 Kamera irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Flasha**, eta hautatu nahi duzun flash ezarpena.
- 3 Atera argazkia.

Argazkiak eta bideoklipak ikusteko



- 1 Ireki kamera, punteatu pantailaren behealdeko miniatura argazki edo bideoklip bat irekitzeko.
 - 2 Korritu ezkerrean edo eskuinera argazkiak eta bideoklipak ikusteko. Bideoek  adierazlea dute.
- 💡 1. urratsean, miniaturak eskuinetik ezkerrean ere korritu eta ikusi nahi duzuna hauta dezakezu.

Argazkiak ezabatzeko

- 1 Ireki ezabatu nahi duzun argazkia.
- 2 Punteatu .






Gehitu kokapen geografikoa argazkietan

Aktibatu geoetiketak, argazkiak ateratzen dituzunean gutxi gorabeherako kokapen geografikoa (geoetiketak) gehitzeko argazkietan. Kokapen geografikoa hari gabeko sareak (mugikorreko sareak eta Wi-Fi® sareak) edo GPS teknologia erabiliz zehazten da.

Kameraren pantailan  agertzen denean, geoetiketak aktibatuta daudela baina kokapen geografikoa ez dela aurkitu adierazten da.  agertzen denean, geoetiketak aktibatuta daudela eta kokapen geografikoa erabilgarri dagoela adierazten da, beraz, argazkietan




geoetiketak gehitu ahal izango dira. Bi ikur horietako bat bera ere agertzen ez bada, geoetiketak desaktibatuta daude.

Aktibatu geoetiketak



- 1 Aktibatu kamera.
- 2 Argazki kamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
- 3 Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Geoetiketak > Aktibatuta**.
- 4 Punteatu **Ados** GPS edo hari gabeko sareak gaitzea onartzeko.
- 5 Markatu hautatu nahi dituzun aukerak **Kokapen zerbitzuak** atalean.
- 6 Ezarpenak berretsitakoan, sakatu  kameraren pantailara itzultzeko.
- 7 Kameraren pantailan  agertzen bada, zure kokapena erabilgarri dago eta zure argazkia geoetiketa daiteke. Bestela, egiaztatu zure GPSa eta/edo hari gabeko sareko konexioa.

Kameraren ezarpenak

Argazki kameraren ezarpenak doitzeko

- 1 Aktibatu kamera.
- 2 Argazki kamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
- 3 Punteatu ezarpen ikonoetako bat pantailaren ezker aldean.
- 4 Ezarpen guztiak bistaratzeko, sakatu .
- 5 Hautatu doitu nahi duzun ezarpena eta, ondoren, editatu nahi bezala.

Pertsonalizatu argazki-kameraren ezarpenen panela

- 1 Kamera irekita dagoenean, sakatu  ezarpen guztiak bistaratzeko.
 - 2 Eduki ukituta mugitu nahi duzun ezarpena eta arrastatu nahi duzun lekura.
-  Ezarpena ezarpenen paneletik kanpora arrastatzen baduzu, aldaketa bertan behera utziko da.

Argazki kameraren ikuspegi orokorra

Eszenak

Eszenak eginbidea erabilia, aurrez programatutako eszenen bidez, kamera bizkor konfiguratu ahal izango duzu egoera arruntetarako. Kamerak hautatutako eszenara doitzeko hainbat ezarpen zehazten ditu, ahalik eta argazkirik onena aterako dela ziurtatzeko.



Desaktibatuta

Eszenak eginbidea desaktibatuta dago eta argazkiak eskuz atera daitezke.



Gaueko eszena

Erabili argazkiak gauean edo argitasun urriko lekuetan ateratzeko. Esposizio denbora luzea dela eta, kamera geldirik mantendu behar da edo azalera egonkor batean ezarri behar da.



Kirolak

Erabili bizkor mugitzen diren objektuei argazkiak ateratzeko. Esposizio denbora laburrak mugimenduek eragindako lausotze efektua murrizten du.

-  Ezarpen hori **Arrunta** moduan soilik dago erabilgarri.

Exposizio balioa



Zehaztu argazkiak agertzea nahi duzun argi kopurua. Zenbat eta handiagoa balioa, orduan eta argi gehiago izango du argazkiak.

-  Ezarpen hori **Arrunta** argazki moduan soilik dago erabilgarri.

Zurien balantzea

Zurien balantzea ezarpenak argi baldintzen arabera doitzen du koloreen balantzea.



Automatikoa

Doitu automatikoki koloreen balantzea argi baldintzetara.



Goria

Doitu koloreen balantzea argi baldintza beroetara, adibidez, bonbilla argiaren azpira.



Fluoreszentea

Doitu koloreen balantzea argitasun fluoreszentera.



Egun argia

Doitu koloreen balantzea kanpoko baldintza eguzkitsura.



Lainotua

Doitu koloreen balantzea zero lainotuetara.

! Ezarpen hori **Arrunta** argazki moduan soilik dago erabilgarri.

Tenporizadorea.

Telefonoari eutsi gabe atera ditzakezu argazkiak tenporizadorea erabiliz. Erabili funtzio hori autorretratuak ateratzeko edo taldeen argazkiak ateratzeko, argazkiak guztiak ager daitezkeen. Tenporizadorea erabili dezakezu ere argazkiak ateratzerakoan kamera mugitzea saihesteko.



Aktibatuta (10 s.)

Ezarri 10 segundoko atzerapena, kamera tekla sakatzen duzunik argazkia ateratzen denera arte.



Aktibatuta (2 s.)

Ezarri 2 segundoko atzerapena, kamera tekla sakatzen duzunik argazkia ateratzen denera arte.



Desaktibatuta

Kameraren pantaila punteatu bezain laster aterako da argazkia.

Geoetiketak

Etiketatu argazkiak non hartuak izan diren azaltzen duten xehetasunekin.



Aktibatuta

Geoetiketak aktibatuta daudenean, argazkiak ateratzean gutxi gorabeherako kokapen geografikoa automatikoki gehitzen zaie. Geoetiketak erabiltzeko, **Ezarpenak** menuan kokapen-eginbideak gaitu behar dituzu. Argazki bati geoetiketak gehitzeko, argazkia atera baino lehenago zehaztu behar da kokapena. Kameraren pantailan agertzeak kokapena zehaztuta dagoela adierazten du. Gailua kokapena bilatzen ari denean, agertuko da.



Desaktibatuta

Geoetiketak desaktibatuta daudenean, ezin duzu argazkiaren kokapena ikusi.

Kapturatzeko metodoa

Hautatu argazkiak ateratzeko erabiltzen duzun metodoa.



Pantailako botoia

Atera argazkia bat kamera pantailako botoia punteatuta. Hatza altxa bezain laster ateratzen da argazkia.







Ukitu argazkia ateratzeko







Identifikatu fokatzeko eremu jakin bat, kameraren pantaila hatzarekin ukituta. Hatza altxa bezain laster ateratzen da argazkia. Fokatzeko modua ukipen fokatzeko gisa ezarrita dagoenean soilik aplikatzen da.

Bideoak grabatzea








Pantaila punteatuta bideoklipa grabatzeko

- 1 Aktibatu kamera.
 - 2 Bideokamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
 - 3 Ezarpen guztiak bistaratzeko, sakatu .
 - 4 Punteatu **Atzeratzeko metodoa** > **Ukitu argazkia ateratzeko**, oraindik hautatu gabe badago.
 - 5 Punteatu kameraren pantaila grabatzen hasteko.
 - 6 Punteatu kameraren pantaila grabaketa gelditzeko.
-  Grabatu bideoklipa modu horizontalean, emaitza onena eskuratzeko.


Pantailako botoia punteatuta bideoklipa erreproduzitzeko

- 1 Aktibatu kamera.
 - 2 Bideokamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
 - 3 Ezarpen guztiak bistaratzeko, sakatu .
 - 4 Punteatu **Atzeratzeko metodoa** eta hautatu **Pantailako botoia**, oraindik hautatu gabe badago.
 - 5 Jarri kamera gauzari begira.
 - 6 Punteatu  grabatzen hasteko.
 - 7 Punteatu  grabatzen gelditzeko.
-  Grabatu bideoklipa modu horizontalean, emaitza onena eskuratzeko.

Grabatutako bideoak erreproduzitzeko




- 1 Aktibatu kamera.
 - 2 Bideokamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
 - 3 Ukitu pantailaren behealdeko koadro txikiak.
 - 4 Korritu ezkerrera edo eskuinera argazki- eta bideo-fitxategi guztiak arakatzeko. Bideoek  adierazlea dute.
 - 5 Punteatu  bideoa erreproduzitzeko.
 - 6 Bideoaren erreprodukzioa gelditzeko, ukitu  edo .
-  Koadro txikiak eskuinetik ezkerrera ere korritu ditzakezu erreproduzitu nahi duzun fitxategia aurkitzeko.

Grabatutako bideoklipak ezabatzeke



- 1 Arakatu ezabatu nahi duzun bideoklipa.
- 2 Punteatu .

Bideokameraren ezarpenak

Bideokameraren ezarpenak doitzeko

- 1 Aktibatu kamera.
- 2 Bideokamera hautatu gabe badago, arrastatu  aukera  aukerara.
- 3 Punteatu ezarpen ikonoetako bat pantailaren ezkerrean.
- 4 Ezarpen guztiak bistaratzeko, sakatu .
- 5 Hautatu doitu nahi duzun ezarpena eta, ondoren, egin aldaketak.

Pertsonalizatu bideokameraren ezarpenen panela

- 1 Bideokamera irekita dagoenean, sakatu  ezarpen guztiak bistaratzeko.
 - 2 Eduki ukituta mugitu nahi duzun ezarpena eta arrastatu nahi duzun lekura.
-  Ezarpena ezarpenen paneletik kanpora arrastatzen baduzu, aldaketa bertan behera utziko da.

Bideokameraren ezarpenen ikuspegi orokorra

Eszenak

Eszenak eginbidea erabilita, aurrez programatutako eszenen bidez bizkor konfiguratu dezakezu kamera egoera arruntetarako. Kamerak hainbat ezarpen zehazten dituzten hautatutako eszenara doitzeko, ahalik eta bideorik onena aterako dela ziurtatzeko.



Desaktibatuta

Eszenen eginbidea desaktibatzen du eta bideoak eskuz grabatu daitezke.



Gaueko eszena

Aktibatzen denean, argiaren sentikortasuna areagotzen da. Erabili argi gutxi lekuetan. Azkar mugitzen diren objektuak dituzten bideoak lausotuta ateratu litezke. Eskua egonkor mantendu edo erabili euskarri bat. Argi baldintzak onak direnean, desaktibatu gau modua bideoaren kalitatea hobetzeko.



Kirolak

Erabili bizkor mugitzen diren objektuen bideoak grabatzeko. Esposizio denbora laburrak mugimenduek eragindako lausotze efektua murrizten du.

Exposizio balioa



Bideoak argi kopurua zehazteko aukera ematen dizu ezarpenak. Zenbat eta handiagoa balioa, orduan eta argi gehiago izango du argazkiak.

Zurien balantzea

Zurien balantzea ezarpenak argi baldintzen arabera doitzen du koloreen balantzea.



Automatikoa

Doitu automatikoki koloreen balantzea argi baldintzetara.



Goria

Doitu koloreen balantzea argi baldintza beroetara, adibidez, bonbilla argiaren azpira.



Fluoreszentea

Doitu koloreen balantzea argitasun fluoreszentera.



Egun argia

Doitu koloreen balantzea kanpoko baldintza eguzkitsura.



Lainotua

Doitu koloreen balantzea zero lainotuetara.

Tenporizadorea

Tenporizadorearekin bideo bat grabatu dezakezu telefonoari eutsi gabe. Erabili taldeko bideoak grabatzeko, bertan guztiak ager daitezten. Bideoak grabatzerakoan kamera mugitzea saihesteko ere erabili dezakezu tenporizadorea.



Aktibatuta (10 s.)

Ezari 10 segundoko atzerapena, kameraren pantaila punteatzen duzunean bideoa grabatzen hasten denera arte.



Aktibatuta (2 s.)

Ezari 2 segundoko atzerapena, kameraren pantaila punteatzen duzunean bideoa grabatzen hasten denera arte.



Desaktibatuta

Kameraren tekla punteatu bezain laster hasiko da bideoa grabatzen.

Kapturatzeko metodoa

Hautatu bideoa grabatzeko erabiliko duzun metodoa.



Pantailako botoia

Bideoa grabatu kameraren pantailako botoiaren bitartez.



Ukitu argazkia ateratzeko

Identifikatu fokatzeko eremu jakin bat, kameraren pantaila hatzarekin ukituta.

Mikrofonoa

Hautatu bideoak grabatzerakoan inguruko soinuak grabatzea nahi duzun.

Obturadorearen soinua

Aukeratu bideoa grabatzerakoan soinua aktibatzea edo desaktibatzea.

Albuma

Albumeko argazkiak eta bideoak ikustea

Erabili Albuma telefonoko kamerarekin ateratako argazkiak ikusteko eta grabatutako bideoak erreproduzitzeko, edo memoria-txartelera deskargatutako edo kopiatutako antzeko edukia ikusteko. Zure argazkiei eta bideoei geoetiketak gehitu eta munduko mapan ikus ditzakezu. Albumean, lineako zerbitzuetan, adibidez, Picasa™ web albumetan edo Facebook™ zerbitzuan, kargatu dituzun argazkiak eta bideoak ere ikus ditzakezu.

Albumean, gogoko argazkiak eta bideoak lagunekin parteka ditzakezu hari gabeko Bluetooth™ teknologia, posta elektronikoa, mezularitza eta hainbat lineako zerbitzuren erabiliz. Halaber, oinarriko editatze-zereginak egin ditzakezu argazkietan eta horma-paper gisa edo kontaktuen argazki gisa ezar ditzakezu argazkiok. Informazio gehiago lortzeko, ikus *Telefonoa ordenagailura konektatu* 92. orrialdean.

Albuma fitxaren ikuspegi orokorra

Fitxa hauek daude erabilgarri Albumean:

- **Argazkiak** – ikusi memoria txartelean gordetako argazki eta bideo guztiak.
- **Mapak** – ikusi geoetiketatutako argazkiak eta bideoklipak munduko mapa batean.
- **Linean** – ikusi lineako albumak.

Albuma irekitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Albuma**.

- 💡 Pantailaren orientazioa automatikoki aldatzen ez bada telefonoa alde batera okertzen duzunean, **Ezarpenak > Pantaila** atalean, markatu **Biratu pantaila automatikoki kontrol-laukia**.


Telefonoan gordetako argazkiak eta bideoak ikustea

Albumeko **Argazkiak** fitxaren sareta ikuspegian, argazkien eta bideoen miniatura ikus dezakezu. Album guztien zerrenda ikuspegira joan eta karpeta bakoitzeko edukia ere aurki dezakezu.

Argazkiak fitxaren ikuspegi orokorra






- 1 Argazkien eta bideoen sareta ikuspegia
- 2 Argazkiak eta bideoak, guztira.
- 3 Beheko taldean dauden elementuen data eta kopurua.
- 4 Punteatu argazki edo bideo bat hura ikusteko.
- 5 Korritu gora edo beheara edukia ikusteko.
- 6 Aldatu telefonoan gordetako argazkiak eta bideoak dituzten karpeten zerrenda ikuspegira.







- 7 Telefonoan gordetako argazkiak eta bideoak dituzten karpeten zerrenda ikuspegia.
- 8 Punteatu **Argazkiak** fitxaren sareta ikuspegira itzultzeko.
- 9 Argazkiak eta bideoak dituzten karpeta kopurua.
- 10 Telefonoaren kamerarekin ateratako argazki guztiak dituen karpeta.
- 11 Telefonoaren kamerarekin ateratako bideo guztiak dituen karpeta.
- 12 Telefonora deskargatutako edo kopiatutako irudi edota bideoak dituzten bestelako karpetak.

Ikusi argazkiak eta bideoak sareta ikuspegian

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Albuma**. Kronologikoki antolatutako sareta batean erakutsiko dira argazki eta bideo guztiak. Bideoek  adierazlea dute.
 - 3 Punteatu argazki edo bideo bat hura ikusteko.
 - 4 Korritu ezkerredera hurrengo argazkia edo bideoklipa ikusteko. Korritu eskuinera aurreko argazkia edo bideoa ikusteko.
-  Pantailaren orientazioa automatikoki aldatzen ez bada telefonoa alde batera okertzen duzunean, **Ezarpenak > Pantaila** atalean, markatu **Biratu pantaila automatikoki kontrol-laukia**.



Ikusi argazkiak eta bideoak zerrenda ikuspegian

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Albuma > Argazkiak**.
 - 3 Punteatu . Telefonoko kamera erabiliz hartutako argazkiak eta bideoak dituzten karpetak goialdean bistaratuko dira. Telefonoan gordetako argazkiak eta bideoak dituzten gainerako karpetak alfabeto-zerrendan bistaratuko dira.
 - 4 Punteatu ireki nahi duzun karpeta. Karpetaren edukia kronologikoki antolatutako saretan agertuko da. Bideoek  adierazlea dute.
 - 5 Punteatu argazki edo bideo bat hura ikusteko.
 - 6 Korritu ezkerreko hurrengo argazkia edo bideoa ikusteko. Korritu eskuinera aurreko argazkia edo bideoa ikusteko.
-  Pantailaren orientazioa automatikoki aldatzen ez bada telefonoa alde batera okertzen duzunean, **Ezarpenak > Pantaila atalean**, markatu **Biratu pantaila automatikoki kontrol-laukia**.

Albumeko miniaturen tamaina aldatzeko

- Albumeko argazkien eta bideoen miniatura ikusten ari zarenean, aldendu hatz bat bestetik handitzeko eta elkartu bi hatzak txikitzeko.

Albumeko argazki eta bideo multzoak lantzeko

- 1 Albumeko argazkien eta bideoen miniatura ikusterakoan, sakatu  eta punteatu **Hautatu elementuak** hautatze modua aktibatzeko.
 - 2 Punteatu landu nahi duzun elementua. Hautatutako elementuak marko urdin batekin adierazten dira.
 - 3 Erabili pantailaren goialdean dagoen tresna barra, hautatutako elementuak lantzeko.
-  Hautatze modua aktibatzeko, elementu bat ukituta eduki behar duzu markoa urdin bihurtzen den arte. Gero, beste elementu batzuk punteatu ditzakezu eurak hautatzeko.


Albumeko argazkiekin lan egitea

Albumeko argazkiak edita ditzakezu. Adibidez, argazkiak moztu ditzakezu, kontaktuekin lotu ditzakezu edo horma paper gisa erabil ditzakezu.


Aplikatu zooma argazkiei

- Argazki bat ikusten ari zarenean, punteatu birritan pantaila handitzeko. Punteatu birritan berriro txikitzeko.
- Argazki bat ikusten ari zarenean, aldendu hatz bat bestetik handitzeko eta elkartu bi hatzak txikitzeko.


Argazkien aurkezpena ikusteko

- 1 Argazki bat ikusten ari zarenean, sakatu  eta punteatu **Diapositiba aurkezpena** albumeko argazki guztiak erreproduzitzen hasteko.
- 2 Punteatu argazki bat aurkezpena amaitzeko.


Argazkiak biratzeko

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, sakatu .
- 2 Hautatu **Biratu ezkerreko** edo **Biratu eskuinera**. Argazkia orientazio berriarekin gordeko da.


Argazkiak mozteko

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, sakatu  eta punteatu **Moztu**.
- 2 Mozte markoa doitzeko, eduki ukituta mozte markoaren ertza. Ertzetako laukiak desagertzen direnean, arrastatu barrura edo kanpora markoaren tamaina aldatzeko.
- 3 Mozte markoaren alde guztien tamaina aldi berean aldatzeko, eduki ukituta lau ertzetako bat ertzetako laukiak desagerrarazteko eta arrastatu ertza nahi den bezala.
- 4 Mozte marko argazkiaren beste eremu batera eramateko, eduki ukituta markoaren barrualdea, eta arrastatu nahi duzun kokapenera.
- 5 Moztu ahala argazkiaren kopia gordetzeko, punteatu **Moztu**. Moztu gabeko jatorrizko bertsioak telefonoaren memoria txartelean mantenduko da.

Erabili argazkiak kontaktuen argazki gisa

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, sakatu  eta punteatu **Erabili honela:** > **Kontaktuaren argazkia**.
- 2 Hautatu argazkiarekin lotu nahi duzun kontaktua.
- 3 Beharrezkoa izanez gero, moztu argazkia.
- 4 Punteatu **Moztu**.


Erabili argazkiak horma-paper gisa

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, sakatu  eta punteatu **Erabili honela:** > **Horma papera**.
- 2 Beharrezkoa izanez gero, moztu argazkia.
- 3 Punteatu **Moztu**.



Argazki bat editatzeko

- Argazki bat ikusten ari zarela, sakatu  eta punteatu **Editatu argazkia**.


Argazkiak partekatzeko

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, punteatu tresna barrak bistaratzeko pantaila eta punteatu .
- 2 Agertzen den menuan, punteatu argazkia partekatzeko erabili nahi duzun aplikazioa eta jarraitu urratsak bidaltzeko.

Argazki bati geoetiketa gehitzeko

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, punteatu tresna barrak bistaratzeko pantaila eta punteatu , maparen pantaila irekitzeko.
 - 2 Bilatu eta punteatu nahi duzun kokapena argazkia mapan jartzeko.
 - 3 Argazkiaren kokapena doitzeko, punteatu argazkia mugitu nahi duzun kokapena mapan.
 - 4 Amaitutakoan, punteatu **Ados** geoetiketa gordetzeko eta itzuli argazki ikustailera.
- 💡 Argazki bat geoetiketatutakoan,  kokapen informazioarekin batera agertzen da. Ikono hori punteatu dezakezu argazkia mapan ikusteko.

Argazkiak ezabatzeko

- 1 Argazki bat ikusten ari zarela, punteatu tresna barrak bistaratzeko pantaila eta punteatu .
- 2 Punteatu **Ados**.


Albumeko bideoekin lan egitea

Erabili Albuma kamerarekin grabatutako, deskargatutako edo memorian-txartelean kopiatutako bideoak ikusteko. Halaber, bideoak lagunekin parteka edo YouTube™ aplikazioan karga ditzakezu.

Bideoak erreproduzitzeko

- 1 Ireki Albumeko **Argazkiak** fitxa.
- 2 Sareta ikuspegia edo zerrenda ikuspegia erabiliz, kokatu ireki nahi duzun bideoa.
- 3 Punteatu bideoklipa erreproduzitzeko.
- 4 Ez bada erreproduzio kontrolik erakusten, punteatu pantaila horiek erakusteko. Kontrolak ezkutatzeko, punteatu pantaila berriro.

Pausatu bideoak

- 1 Bideo bat erreproduzitzen ari denean, sakatu pantaila kontrolak bistaratzeko.
- 2 Sakatu .


Aurreratu eta atzeratu bideoak

- 1 Bideo bat erreproduzitzen ari denean, sakatu pantaila kontrolak bistaratzeko.
- 2 Arrastatu progresio barraren markatzailea ezkerrera, birbobinatzeko; edo eskuinera, azkar aurreratzeko.


Doitu bideoen bolumena

- Sakatu bolumen-tekla.

Bideoklipak partekatzeko

- 1 Bideo bat erreproduzitzen ari denean, sakatu  eta punteatu **Partekatu**.
 - 2 Agertzen den menuan, punteatu hautatutako bideoklipa partekatzeko erabili nahi duzun aplikazioa eta jarraitu dagozkion urratsak bidaltzeko.
- ! Agian ezingo dituzu copyright bidez babestutako elementuak kopia, bidali, edo transferitu. Halaber, baliteke zenbait elementu ez bidaltzea, fitxategiaren tamaina handiegia bada.


Bideoklipak ezabatzeko

- 1 Albumean, bilatu ezabatu nahi duzun bideoa.
- 2 Eduki ukituta bideoa hautatze modua aktibatzeko. Bideoaren miniaturaren markoa urdin jarriko da hautatutakoan.
- 3 Sakatu  eta, ondoren, sakatu **Ados**.

Argazkiak mapa batean ikustea

Argazkiak ateratzerakoan kokapena hautematea gaitzen baduzu, geroago bildutako informazioa erabil dezakezu. Adibidez, zure argazkiak mapa batean ikusi eta argazkia ateratakoan non zeunden erakuts diezaiekezu lagunei eta familia kideei. Kokapen informazioa gehitzeari geotiketatzea ere deitzen zaio. Tokiko hautematea gaitzen duzunean, GPS sateliteak edo hari gabeko sareak erabiltzea hauta dezakezu, zure kokapena bilatzeko.

Mapak fitxaren ikuspegi orokorra



- 1 Geotiketaturako argazkien eta bideoen kopurua.
- 2 Punteatu bi aldiz handiagotzeko. Egin atximurka txikiagotzeko. Arrastatu mapapre ikuspegi desberdinak ikusteko.
- 3 Kokapen berarekin geotiketaturako argazkien argazkien eta/edo bideoen talde bat.
- 4 Hautaturako argazki eta/edo bideo taldearen miniatura. Punteatu elementu bat pantaila osoan ikusteko.
- 5 Bilatu kokapen bat mapan.
- 6 Aldatu munduaren ikuspegira.

Kokapen hautematea gaitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Kokapen zerbitzuak**.
- 3 Markatu **GPS sateliteak** eta/edo **Google kokapen zerbitzua** kontrol laukiak.

Mapa batean geotiketaturako argazkiak Albumean ikusteko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu 🗄️.
 - 2 Bilatu eta punteatu **Albuma > Mapak**.
 - 3 Punteatu argazki bat pantaila osoan ikusteko.
 - 4 Hainbat argazki kokapen berean atera badira, bakarra agertuko mapan. Argazkien guztizko kopurua goi-eskuin ertzean agertzen da, adibidez, 📍. Argazki horiek ikusteko, punteatu azaleko argazkia eta punteatu pantailaren behealdeko miniaturetako bat.
- 💡 Geotiketaturako argazki bat argazki ikustailera ikusterakoan, pantaila uki dezakezu tresna barrak bistartzeko; ondoren, punteatu 📍 argazkia mapan ikusteko.


Mapa Albumean ikusterakoan geotiketa gehitzeko

- 1 Mapa Albumean ikusterakoan, sakatu 🗄️ eta punteatu **Gehitu geotiketa**.
- 2 Bilatu eta punteatu geotiketa gehitu nahi diozun argazkia.
- 3 Punteatu nahi duzun kokapena mapan geotiketa ezartzeko eta punteatu **Ados**.

Albumean argazki baten geotiketa editatzeko

- 1 Albumeko mapan argazki bat ikusten ari zarenean, eduki ukituta argazkia markoa urdin jarri arte.
 - 2 Arrastatu argazkia kokapen berrira.
- 💡 Bestela, mapan nahi duzun kokapena punteatu dezakezu, arrastatu beharrean.


Albumean maparen ikuspegia aldatzeko

- Mapa Albumean ikusterakoan, sakatu  eta hautatu **Ikuspegi klasiko** edo **Satelite ikuspegia**.

Lineako albumak ikustea


Albumean, Picasa™ and Facebook™ gisako lineako zerbitzuetan kargatu dituzun argazkiak eta bideoak ere ikus ditzakezu. Ikusi zure lagunaren iruzkinak eta gehitu zeureak. Argazki bat gomendatu edo "Atsegin" bat ere jar diezaiokezu, zure albumak Facebook™-en ikusten duzunean.

Linean fitxaren ikuspegi orokorra




- 1 Erabilgarri dauden lineako albumen kopurua.
- 2 Lineako zerbitzu aktiboa.
- 3 Lineako album baten izena.
- 4 Lineako albumeko elementuen kopurua.


Lineako zerbitzuetako argazkiak Albumean ikusteko

- 1 Egiaztatu dagokion lineako zerbitzuan saia hasita zaudela, adibidez, Facebook™ aplikazioan.
- 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Albuma** > **Linean**. Erabilgarri dauden lineako album guztiak bistaratzeko dira.
- 4 Punteatu edozein albuma bere edukiak ikusteko eta, ondoren, punteatu argazki bat albumean.
- 5 Argazki-ikustaillean, korritu ezkerrera hurrengo argazkia edo bideoa ikusteko. Korritu eskuinera aurreko argazkia edo bideoa ikusteko.

Lineako albumeko edukiaren iruzkinak ikusi eta gehitzeko

- 1 Argazki bat lineako albumean ikusterakoan, punteatu pantaila tresna barrak bistaratzeko eta punteatu  iruzkinak ikusteko.
- 2 Iruzkinak ikusteko, korritu pantailan behera.
- 3 Zeure iruzkinak gehitzeko, sartu zure iruzkinak pantailaren behealdean eta punteatu **Bidali**.

Facebook™ aplikazioan argazki edo bideo bat gomendatzeko

- Facebook™ aplikazioko album bateko argazki edo bideo bat ikusten ari zaren bitartean, punteatu pantaila tresna-barrak bistaratzeko eta, ondoren, punteatu  Facebook™ aplikazioko elementua "Atsegin" duzula erakusteko.

Filmak




Movies aplikazioari buruz jakin beharrekoak

Movies aplikazioa erabili zure telefonoan gordetako filmak eta bideo edukiak erreproduzitzeko. Movies aplikazioarekin filmen horma-irudiak, laburpenak, generoaren informazioa eta xehetasunak lortu ahal izango dituzu. Gainera, sare berera konektatuta dauden beste gailu batzuetan ere erreproduzi ditzakezu filmak.



- ! Albumean ikusiko dituzu zure telefonoaren kamerarekin ateratako bideoak, ez Movies aplikazioan. .

Movies aplikazioa erabiltzea


Filmak aplikazioan bideoklipak erreproduzitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Filmak**. Film guztiak saretan bistaratuko dira.
- 3 Punteatu hautatu nahi duzun filma eta, ondoren, punteatu  erreproduzitzeko.
- 4 Kontrolak bistaratu edo ezkutatzeko, punteatu pantaila.
- 5 Filma eteteko, punteatu .
- 6 Filma atzeratzeko, arrastatu progresio markatzailea ezkerredera. Filma azkar aurreratzeko, arrastatu progresio markatzailea eskuinera.





Filma pantaila osoan erreproduzitzeko

- 1 Film bat erreproduzitzen ari denean, sakatu pantaila kontrolak bistartzeko.
 - 2 Punteatu .
- 💡 Filma jatorrizko tamainan erreproduzitzeko, punteatu .


Filmak partekatzeko

- 1 Film bat erreproduzitzen ari denean, sakatu  eta punteatu **Partekatu**.
- 2 Agertzen den menuan, punteatu hautatutako bideoklipa partekatzeko erabili nahi duzun aplikazioa eta jarraitu dagozkion urratsak bidaltzeko.

Filmaren informazioa eskuz eskuratzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Filmak**. Film guztiak saretan bistaratuko dira.
 - 3 Sakatu , egiaztatu **Lineako modua** kontrol laukia markatuta dagoela eta zure telefonoak datu konexio bat duela.
 - 4 Eduki ukituta eskuratu nahi duzun filmaren informazioa eta punteatu **Bilatu informazioa** agertzen den zerrendan.
 - 5 Bilaketa eremuan, sartu film baten gako hitzak eta punteatu . Bat datozen guztiak zerrendan bistaratuko dira.
 - 6 Punteatu nahi duzun emaitza eta punteatu **Eginda**. Informazioa deskargatzen hasiko da.
 - 7 Deskargatzen amaitutakoan, punteatu filma bere informazioa ikusteko. Informazioa zuzena ez bada, punteatu  eta bilatu berriro.
- ! Baliteke datuak transmititzeagatik kostuak aplikatzea.

Film baten informazioa garbitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Filmak**. Film guztiak saretan bistaratuko dira.
- 3 Eduki ukituta nahi duzun filma eta punteatu **Ezabatu informazioa** agertzen den zerrendatik.



Web-arakatzaileria

Web arakatzaileria buruz

Web arakatzaileria erabili web orriak ikusteko, horietan nabigatzeko, orriak laster marka gisa gehitzeko eta lineatik kanpo ikusteko moduan gordetzeko. 16 leiho zabal ditzakezu aldi berean eta erraz ibil zaitezke batetik bestera. Web orri baten mahaigaineko bertsioa ere eska dezakezu mugikorrerako bertsioa ikusi nahi ez baduzu.

Android™ gailuentzako Google™ Chrome web arakatzaileria aurreinstalatuta etorri ohi da merkatu askotan. Informazio gehiagorako, zoaz play.google.com/store/apps/details?id=com.android.chrome helbidera.

Ireki web-arakatzaileria


- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu .

Web arakatu

Bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barra

Erabili bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barra sarea arakatzeko.



- 1 Ikusi uneko orriaren deskarga nola doan.
 - 2 Idatzi bilaketarako hitz bat web-orri bat bilatzeko edo idatzi helbide elektronikoko bat web-orri bat kargatzeko.
 - 3 Utzi bertan behera uneko orriaren deskarga.
-  Batzuetan bilaketarako eta helbideak jartzeko barra ez da ikusgai egoten web-orriaren deskarga burututakoan. Pantailan beherantz klik egiten baduzu, berriro azalduko da.



Web orrietara joateko

- 1 Punteatu bilaketaren eta helbidearen testu eremua teklatura aktibatuz.
- 2 Idatzi web helbidea.
- 3 Punteatu **Joan hona:**.

Web orriak bilatzeko

- 1 Punteatu bilaketaren eta helbidearen testu eremua teklatura aktibatuz.
- 2 Sartu bilaketa hitz bat.
- 3 Punteatu **Joan hona:**.

Irten Interneteko arakatzaileritik

- Arakatzerakoan, sakatu .
-  Arakatzaileria berriro zabalitzen duzunean, baita telefona berrabiarazten duzunean ere, arakatzaileria aurreko aldiaren irten baino lehen zegoen bezala egongo da. Esaterako, leiho kopuru bera izango du zabalik.

Web orrietan zehar nabigatu

Esteka bat hautatzeko

- Web-orri bateko esteka bat hautatzeko, sakatu esteka. Hautatutako esteka nabarmenduta jarriko da eta web-orria kargatzen hasiko da hatza kentzen duzunean.
- 💡 Esteka bat nahi gabe hautatzen baduzu hatza kendu aurretik, arrastatu behatza estekatik kanpora eta desautatu egingo da.

Joan aurreko orrira arakatzerakoan

- Sakatu ↶.

Web orriak handitzeko edo txikitzeko

Erabili metodo hauetako bat web-orriak handiagotzeko eta txikiagotzeko:

- Punteatu bi aldiz web-orria handiagotzeko edo punteatu berriro bi aldiz txikiagotzeko.
- Ukitu orriko eremu bat aldi berean bi hatzekin, eta bereizi hatzak handiagotzeko edo hurbildu bata bestearengana txikiagotzeko.

Kargatu berriro uneko web-orria



- Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Freskatu**.

Web-orri bat lineaz kanpo ikusteko gordetzeko


- 1 Web-orria kargatzean, sakatu .
- 2 Punteatu **Gorde lin. kanpo irakurtzeko**. **Gordetako orriak** fitxara iritsiko zara eta hor ikus ditzakezu gordetako web-orri guztiak.

- ! Memoria txartela erabilgarri ez badago, web-orria ezin da gorde.


Lehendik gordetako web-orri bat ikusteko

- 1 Arakatzailera zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan.
- 3 Ukitu  eta ondoren ukitu **Gordetako orriak** fitxa.
- 4 Bilatu eta hautatu bistaratu nahi duzun web-orri bat.


Lineaz kanpoko web-orri baten zuzeneko bertsioa kargatzeko

- 1 Lineaz kanpoko web-orri bat zabalik dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Joan benetako orrira**.



Web-orri baten mahaigaineko bertsioa eskatzeko

- 1 Web-orria arakatzean, sakatu .
 - 2 Punteatu **Ordenagailuko bertsioa**.
- ! Leiho batean web-orri baten mahaigaineko bertsioa ikusteko eskatzen duzunean, leiho berean geroago ikusten dituzun beste web-orri guztiak ere mahaigaineko bertsioan ikusiko dituzu. Ukitu **Ordenagailuko bertsioa** berriro, ezarpena lehengora itzultzeko.

Uneko web-orri laster-bidea partekatzeko

- 1 Arkatzerakoan, sakatu .
- 2 Punteatu **Partekatu orria**.
- 3 Hautatu erabilgarri dauden transferentzia-metodoetako bat eta jarraitu pantailako argibideak.

Arakatzaillearen leiho bat ixteko


- 1 Arakatzaillea zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan. Irekita dauden leiho guztien zerrenda azalduko zaizu.
- 3 Ukitu  itxi nahi duzun leihoan edo mugitu leihoa pantailatik ezkerrera edo eskuinera ixteko.

Laster markak kudeatzea



Laster markekin gogoko web orriak eta gehien erabiltzen dituzunak bizkor atzi ditzakezu. Telefonoko arakatzailetik zuzenean gehi ditzakezu laster markak. Era berean, telefonoko arakatzaillea ordenagailua erabiliz Google kontura sinkronizatu dituzun Google Chrome™ nabigatzaileko laster markekin sinkroniza dezakezu. Ikus *Arakatzaillea Google™ Chrome zerbitzuarekin sinkronizatze*ko 96. orrialdea.

Zure sareko operadorearen arabera, laster-marka batzuk aurrez instalatuta izan ditzakezu telefonoan.



Ezarri laster-marka web-orri bati

- 1 Web-orria ikusten ari zarela, sakatu .
- 2 Punteatu **Gorde laster marketan**.
- 3 Nahi izanez gero, editatu laster marka.
- 4 Amaitutakoan, punteatu **Ados**.



Laster-markak irekitzeko

- 1 Arakatzaillea irekita dagoenean, korritu pantailan beheara bilaketa egin eta helbide barra agertuko da.
- 2 Punteatu bilaketaren alboko  eta helbide barra; ondoren, punteatu . Google Chrome™ nabigatzailearekin sinkronizatutako edozein konturen izenak bistaratuko dira. Telefonoan zuzenean gordetako laster markak **Tokikoak** kontuan bistaratuko dira.
- 3 Kontuaren laster markak erakusteko, punteatu kontua. Kontuko laster marka guztiak bistaratuko dira.
- 4 Laster marka irekitzeko, punteatu.



Laster-markak editatzeko

- 1 Arakatzaillea zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan; ondoren, ukitu .
- 3 Eduki ukituta laster-marka bat.
- 4 Irekitzen den menuan, punteatu **Editatu laster-marka**.
- 5 Editatu laster marka nahi bezala.
- 6 Amaitutakoan, punteatu **Ados**.




Laster markadun web orriak hasierako pantailan gehitzeko

- 1 Arakatzaillea zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan; ondoren, ukitu .
- 3 Eduki punteatuta **Hasierako pantaila** ikuspegian gehitu nahi duzun laster marka.
- 4 Irekitzen den menuan, punteatu **Gehitu laster tekla hasieran**.

Laster-markak ezabatze



- 1 Arakatzaillea zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan; ondoren, ukitu .
- 3 Eduki ukituta laster-marka bat.
- 4 Azaltzen den menuan, punteatu **Ezabatu laster-marka** hautatutako laster-marka ezabatze.

Ezarri laster-marka aurrez bisitatutako web-orri bati


- 1 Arakatzailera zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan; ondoren, ukitu .
- 3 Ukitu **Historia** fitxa, ondoren ukitu beheara egiteko gezieta bat aurrez ikusitako web-orrien zerrenda ikusteko.
- 4 Ukitu laster-marka gisa gehitu nahi duzun web-orriaren ondoan dagoen  aukera.
- 5 Nahi izanez gero, editatu informazioa xehetasun handiagoz, hala nola, laster-markaren izena eta kokapena.
- 6 Amaitutakoan, punteatu **Ados**.

Testua eta irudia kudeatu

Web orrietan testua bilatzeko

- 1 Web orri bat ikusten ari zarela, sakatu .
- 2 Punteatu **Bilatu orrian**.
- 3 Idatzi bilaketaren testua. Bilaketarekin bat datozen karaktereak nabarmentzen dira web orrian.
- 4 Punteatu gora edo beheara egiteko geziak, nabarmenduta dagoen aurreko edo hurrengo elementura joateko.
- 5 Punteatu  bilaketa barra ixteko.

Kopiatu web-orrietako testua

- 1 Eduki ukituta kopiatu nahi duzun testuaren zati bat, nabarmentzen den arte. Fitxak hautapenaren amaieran agertzen dira. Arrastatu fitxak kopiatu nahi duzun testu guztia hautatzeko.
 - 2 Sakatu  eta, ondoren, sakatu **Kopiatu**.
 - 3 Testua mezu elektronikoa, SMS edo MMS batean itsasteko, eduki ukituta testu-eremua dagokion aplikazioan eta, agertzen den menuan, punteatu **Erantsi**.
- ! Kopiatu nahi duzun testua beste web orri baterako esteka baten zati bada, agertzen den menuan **Hautatu testua** punteatu beharko duzu jarraitu ahal izateko.



Web-orrietatik irudiak gordetzea

- 1 Web-orri aktiboan, ukitu eta eduki horrela nahi duzun irudia menu bat agertu arte.
 - 2 Punteatu **Gorde irudia**.
- ! Memoria txartela erabilgarri ez badago, irudia ezin da gorde.



Hainbat leiho

Zure arakatzailera, gehienez, 16 leiho exekuta ditzake aldi berean. Adibidez, leiho batean zure web-posta zerbitzuan saioa has dezakezu, eta beste batean eguneko albisteak irakur ditzakezu. Erraz mugitu zaitezke leiho batetik bestera. Sarea arakatzeko pribatasun handiagoa nahi baduzu, ezkutukako fitxa erabil dezakezu leiho bat zabaltzeko. Horrela, ez du informazio pertsonalik, ez cookierik gordeko konektatuta zauden bitartean.

Ireki arakatzailerean leiho berri bat

- 1 Arakatzailera zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan; ondoren, ukitu .


Ezkutuko leiho bat irekitzeko

- 1 Arakatzailera zabalik dagoenean, joan pantailan beheara bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan.
- 3 Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Ezkutuko fitxa berria**.

Arakatzailleko leiho berri batean estekak irekitzeko

- 1 Eduki ukituta esteka bat menu bat agertu arte.
- 2 Punteatu **Ireki fitxa berrian**.


Aldatu arakatzaille-leiho batetik bestera

- 1 Arakatzaillea zabalik dagoenean, joan pantailan behera bilaketetarako eta helbideak jartzeko barra azal dadin.
- 2 Ukitu  bilaketak egiteko eta helbideak jartzeko barraren ondoan.
- 3 Korritu gora eta behera irekitako leiho guztien zerrenda ikusteko.
- 4 Ukitu zer leihotara igaro nahi duzun.


Webetik deskargatu

Weba arakatu bitartean aplikazioak eta edukia deskarga dezakezu telefonoko web arakatzaillea erabiliz. Oro har, nahi duzun fitxategia deskargatzeko esteka ukitu behar duzu eta automatikoki hasiko da deskargatzen.

Deskargatutako fitxategiak ikusteko

- 1 Egiaztatu memoria txartela telefonoan sartuta dagoela aurrez (txartelera) deskargatutako edozein fitxategi ikusi aurretik.
- 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Deskargak**.

Abian den deskarga bat bertan behera uzteko

- 1 Telefonoa fitxategi bat deskargatzen hasten denean, arrastatu egoera barra eta punteatu deskargatzen ari zaren fitxategia.
- 2 Markatu utzi nahi duzun eta deskargatzen ari den fitxategiaren ondoko kontrol laukia
- 3 Punteatu .


Arakatzaillearen ezarpenak

Arakatzaillearen ezarpenak aldatu eta arakatzaillearen ikuspegia pertsonaliza dezakezu. Adibidez, testuaren tamaina alda dezakezu dituzun beharren arabera, edo cachea, cookieak, arakatzaillearen historia eta sartzen zaren webguneetako beste datu batzuk garbitu.


Arakatzaillearen ezarpenak aldatzeko

- 1 Arakatzaillea irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak**.


Webguneetako testuaren tamaina aldatzeko

- 1 Arakatzaillea irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Erabilerraztasuna**.
- 3 Doitu testu-tamainaren ezarpenak, nahi bezala.


Cache memoria telefonotik ezabatzeko

- 1 Arakatzaillea irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Pribatutasuna eta segurtasuna**.
- 3 Punteatu **Garbitu cachea** eta, ondoren, punteatu **Ados** berresteko.

Arakatzailleko cookieak ezabatzeko

- 1 Arakatzaillea irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Pribatutasuna eta segurtasuna**.
- 3 Punteatu **Garbitu cookie-en datuak** eta, ondoren, punteatu **Ados** berresteko.

Arakatzaillearen historia garbitzeko

- 1 Arakatzaillea irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Pribatutasuna eta segurtasuna**.
- 3 Punteatu **Garbitu historia** eta gero punteatu **Ados** egiaztatzeko.

Web-orriak automatikoki egokitzea

Zure nabigatzaileak automatikoki egokitzeko aukera bat du eta horri esker, errazagoa da testu eta irudi asko dituzten web-orri handiak, egunkariak kasu, irakurtzea. Aukera hori gaitzean, nabigatzaileak pantailan automatikoki egokitzen ditu irudiak eta testu-zutabeak, hatzekin zooma egin ondoren, pantaila zuzenean bi aldiz ukitzen duzunean. Automatikoki egokitzeko aukera desgaituta badago, litekeena da zeharka korritu behar izatea esaldia osorik irakurtzeko.


Web-orriak automatikoki doitzeko

- 1 Arakatzailera irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Aurreratua** > **Doitu orriak auto..**

Testua automatikoki betetzea

Automatikoki betetzeko aukerari esker, datuak, izenak eta helbideak kasu, web-inprimakietan automatikoki sar ditzakezu, beraz, ez duzu informazio bera web-orri batean baino gehiagotan behin eta berriro sartu behar.



Eremuak automatikoki betetzeko testua sortzeko

- 1 Arakatzailera irekita dagoela, sakatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Orokorra**.
- 3 Oraindik markatu gabe badago, markatu **Inprimakien betetze automatikoa** kontrol-laukia.
- 4 Punteatu **Betetze automatikoko testua** eta, ondoren, sartu web-inprimakiak automatikoki betetzeko erabili nahi duzun testua, adibidez, zure izena eta helbidea.
- 5 Amaitutakoan, punteatu **Gorde**.

Plugin ezarpenak

Plugin batek web-orri batean nola funtzionatu duen doi dezakezu. Esaterako, pluginak web-orri bat ikusten duzunean efektu bisual onena eskuratzeko gai ditzakezu. Bestela, azkarrago arakatzeko, arakatzailera pluginak eskatu ahala bakarrik exekutatzeko konfiguratu dezakezu edo pluginak erabat desgaitu dezakezu.

Pluginak eskatu ahala gaitzeko

- 1 Arakatzailera irekita dagoela, sakatu .
 - 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Aurreratua** > **Gaitu plugin-ak**.
 - 3 Markatu **Eskatuz gero** kontrol-laukia.
-  Arakatzailera berrabiarazi behar duzu ezarpenak eragina izan dezan.

Konektagarritasuna

Hari gabeko sareetara konektatzea




Internetera telefonotik sar zaitezke hari gabe Wi-Fi® teknologia erabiliz. Horrela, weba arakatu eta tarifa merkeagoak lortu ahal izango dituzu.

Zure enpresak edo erakundeak sare pribatu birtual (VPN) bat badu, sare horretara konektatu ahal izango duzu telefonoarekin. VPN erabili dezakezu enpresako Intraneten edo bestelako barneko zerbitzuetan sartzeko.





Wi-Fi®

Wi-Fi® teknologia erabiliz, Internetera sar zaitezke hari gabe telefonoaren bidez. Interneten Wi-Fi® konexioa erabiliz sartzeko, Wi-Fi® sare erabilgarriren bat bilatu eta bertara konektatu beharko zara. Wi-Fi® sarearen seinalea alda daiteke telefonoaren kokapenaren arabera. Wi-Fi® sarbidearen ondoan jarrita, seinale areagotuko da.


Wi-Fi® aktibatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak**.
 - 3 Ukitu , **Wi-Fi** zerbitzuaren alboan dagoena. Horrela,  aldatu eta | bihurtuko da. Telefonoak Wi-Fi® sare erabilgarriak eskaneatuko ditu.
- ! Baliteke zenbait segundo behar izatea Wi-Fi® konexioa gaitu arte.

Wi-Fi® sare batera konektatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak**.
 - 3 Ziurtatu Wi-Fi® funtzioa aktibatuta dagoela. Punteatu **Wi-Fi**.
 - 4 Erabilgarri dauden Wi-Fi® sareak bistaratzen dira. Sare erabilgarriak irekiak zein seguruak izan daitezke. Irekitako sareak  irudiarekin adierazten dira; sare seguruak, aldiz, Wi-Fi® sarearen izenaren ondoko  irudiarekin.
 - 5 Punteatu Wi-Fi® sare bat bertara konektatzeko. Wi-Fi® sare seguru batera konektatzen saiatzen bazara, pasahitza sartzeko eskatuko zaizu. Konektatutakoan,  bistaratzen da egoera-barran.
- ! Telefonoak konektatzen zaren Wi-Fi® sareak gogoratzen ditu. Aurretik konektatu zaren Wi-Fi® sare baten estalduran zaudenean, telefonoa automatikoki konektatuko da bertara.
- 💡 Zenbait lekutan, Wi-Fi® sareak irekitzeko web orri batean hasi beharko duzu saioa sarean sartu ahal izan aurretik. Jarri harremanetan Wi-Fi® sarearen administratzailearekin informazio gehiago jasotzeko.


Beste Wi-Fi® sare batera konektatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak** > **Wi-Fi**. Detektatutako Wi-Fi® sareak bistaratzen dira.
- 3 Punteatu beste Wi-Fi® sare bat bertara konektatzeko.

Wi-Fi® sareak eskuz bilatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak** > **Wi-Fi**.
- 3 Punteatu **Bilatu**. Telefonoak Wi-Fi® sareak bilatzen ditu eta erabilgarri daudenak zerrenda batean bistaratzen ditu.
- 4 Punteatu zerrendako Wi-Fi® sare bat bertara konektatzeko.

Wi-Fi® sare bat eskuz gehitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Wi-Fi**.
- 3 Punteatu **Gehitu sarea**.
- 4 Idatzi sarearentzako **Sarearen SSIDa**.
- 5 Punteatu **Segurtasuna** eremua segurtasun mota hautatzeko.
- 6 Beharrezkoa izango balitz, idatzi pasahitza.
- 7 Punteatu **Gorde**.

! Jarri Wi-Fi® sarearen administratzailearekin harremanetan sarearen izena (SSID) eta pasahitza lortzeko.



Wi-Fi® ezarpen aurreratuak

Wi-Fi® sareak eskuz gehitu aurretik, Wi-Fi® ezarpena aktibatu behar duzu telefonoan.

Wi-Fi® sarearen egoera

Wi-Fi® sare batera konektatuta zaudenean, edo inguruan Wi-Fi® sareak erabilgarri daudenean, Wi-Fi® sare horien egoera ikus daiteke. Telefonoak Wi-Fi® sare ireki bat aurkitzen duen bakoitzean jakinaraz zaitzan ezar dezakezu ere.

Wi-Fi® sarearen jakinarazpenak gaitzeko

- 1 Aktibatu Wi-Fi® konexioa, oraindik aktibatuta ez badago.
- 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Wi-Fi**.
- 4 Sakatu .
- 5 Punteatu **Aurreratua**.
- 6 Markatu **Sareko jakinarazpena** kontrol-laukia.

Wi-Fi® sare konektatu bati buruzko informazio xehatua bistartzeko



- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Wi-Fi**.
- 3 Punteatu unean konektatuta zauden Wi-Fi® sarea. Sarearen informazio xehatua bistaratuko da.

Wi-Fi® lokartze-gidalerroak

Wi-Fi® lokartze-gidalerro bat gehituta, Wi-Fi saretik sare mugikorrera noiz aldatu zehatz dezakezu.

! Wi-Fi® sarera konektatuta ez bazaude, telefonoak mugikorreko datu-konexioa erabiltzen du Internet atzitzeko (telefonoan mugikorreko datu-konexioa gaitu baduzu).

Wi-Fi® lokartze-gidalerroak gehitzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Wi-Fi**.
- 3 Sakatu .
- 4 Punteatu **Aurreratua**.
- 5 Punteatu **Wi-Fi aktibatuta lokartzean**.
- 6 Hautatu aukera bat.

Telefonoaren datu mugikorren konexioa partekatzea

Ordenagailu bakar batekin parteka ditzakezu telefonoaren datu mugikorren konexioa, USB kable bat erabiliz. USB bidez amarratzea deritzo prozesu horri. Telefonoaren datu konexioa zortzi gailurekin parteka dezakezu aldi berean. Horretarako, telefonoa Wi-Fi® publiko eramangarri bihurtu behar duzu.

Telefonoa bere datu konexioa partekatzen ari denean, ikono hau ager daiteke egoera barran edo jakinarazpen panelean:



USB bidez amarratzea aktibatuta dago



Telefonoaren datu konexioa USB kablea erabiliz partekatzeke

- 1 Desaktibatu telefonoko USB kable bidezko konexio guztiak.
 - 2 Konektatu telefonoa ordenagailura telefonoarekin batera etortzen den USB kablearen bidez .
 - 3 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu
 - 4 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Gehiago... > Lotura eta sare eramang..**
 - 5 Markatu **USB lotura** kontrol-laukia. Telefonoa bere sare mugikorreko data ordenagailuarekin, USB konexio bidez, partekatzen hasiko da. Abian dagoen jakinarazpena agertuko da egoera barran eta jakinarazpen panelean.
 - 6 Kendu marka **USB lotura** kontrol laukiari edo deskonektatu USB kablea datu konexioa partekatzen gelditzeko.
- ! Ezin dituzu telefonoaren datu konexioa eta SD txartela USB kablearen bidez partekatu aldi berean. Informazio gehiago lortzeko, ikusi *Telefonoa ordenagailura konektatu atala 92*. orrialdean.
- 💡 Ordenagailua prestatu behar duzu sare konexio bat USB kable bidez ezartzeko. Joan android.com/tether orrira informazio eguneratuena eskuratzeko.

Telefonoaren datu-konexioa Wi-Fi® publiko eramangarri gisa partekatzeke

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Gehiago... > Lotura eta sare eramang..**
- 3 Punteatu **Konfiguratu Wi-Fi gunea**.
- 4 Idatzi sarearentzako **Sarearen SSIDa**. Punteatu **Segurtasuna** eremua segurtasun mota hautatzeko.
- 5 Beharrezkoa izango balitz, idatzi pasahitza.
- 6 Punteatu **Gorde**.
- 7 Markatu **Wi-Fi gune eramangarria** kontrol-laukia. Telefonoa bere Wi-Fi® sarearen izena (SSID) emititzen hasiko da. Sare horretara 8 ordenagailu edo beste gailu batzuk konekta ditzakezu.
- 8 Kendu marka **Wi-Fi gune eramangarria** kontrol laukiari, datu konexioa Wi-Fi® bidez partekatzen gelditzeko.

Wi-Fi publikoa eramangarria berrizendatzeko edo segurtatzeko





- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Gehiago... > Lotura eta sare eramang..**
- 3 Punteatu **Konfiguratu Wi-Fi gunea**.
- 4 Idatzi sarearentzako **Sarearen SSIDa**.
- 5 Segurtasun mota hautatzeko, ukitu **Segurtasuna** eremua.
- 6 Beharrezkoa izango balitz, idatzi pasahitza.
- 7 Punteatu **Gorde**.

Hari gabeko Bluetooth™ teknologia



Erabili Bluetooth™ funtzioa Bluetooth™ bateragarria duten beste gailu batzuetara fitxategiak bidaltzeko edo osagarri eskulibreterara konektatzeko. Aktibatu telefonoko Bluetooth™ funtzioa eta sortu hari gabeko konexioak beste Bluetooth™ gailu bateragarriekin, hala nola ordenagailuak, eskulibre osagarriak eta telefonoak. Bluetooth™ konexioak 10 metroko barrutian funtzionatzen du hoberen, tartean objektu solidorik izan gabe. Zenbait kasutan, telefonoa beste Bluetooth™ gailuekin eskuz bikotetu beharko duzu. Gogoratu telefonoa "ikusgai" ezartzea beste Bluetooth™ gailuek zure telefonoa aurkitzea nahi baduzu.

- ! Bluetooth™ gailuen arteko eraginkortasuna eta bateragarritasuna alda daiteke batetik bestera.

Aktibatu Bluetooth™ funtzioa eta ezarri telefonoa ikusgai

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak**.
- 3 Ukitu , **Bluetootha** zerbitzuaren alboan dagoena. Horrela,  aldatu eta |.  azalduko da egoera-barran.
- 4 Punteatu **Bluetootha**.
- 5 Punteatu **Ez dago ikusgai beste Bluetooth gailuetan**.



Telefonoaren ikusgarritasun-tartea beste Bluetooth™ gailu batzuetara doitzea

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Bluetootha**.
- 3 Sakatu  eta hautatu **Ikusgaitasun denbora muga**.
- 4 Hautatu aukera bat.

Telefonoari izena jartzea

Telefonoari izena jar diezaiokezu. Bluetooth™ funtzioa aktibatu ostean, beste gailuei erakutsiko zaie izen hori eta telefonoa ikusgai izango da.

Telefonoaren izena ezartzeko

- 1 Ziurtatu Bluetooth™ funtzioa aktibatuta dagoela.
- 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Bluetootha**.
- 4 Sakatu  eta hautatu **Aldatu telefonoaren izena**.
- 5 Sartu telefonoaren izena.
- 6 Punteatu **Aldatu izena**.

Beste Bluetooth™ gailu batekin bikotetu


Telefonoa beste gailu batekin bikotetuta, besteak beste, telefonoa Bluetooth™ bidezko eskulibre batera edo Bluetooth™ bidezko autoko kit batera konekta dezakezu, deiak gailu horien bidez egiteko eta jasotzeko.

Behin telefonoa Bluetooth™ bidezko gailuarekin bikotetutakoan, telefonoak bikotetzea gogoratuko du. Telefonoa Bluetooth™ bidezko gailu batekin bikotetzean, agian pasakode bat sartu beharko duzu. Telefonoa 0000 pasakode orokorra erabiltzen saiatuko da. Funtzionatzen ez badu, ikus Bluetooth™ gailuaren dokumentazioa gailuaren pasakodea eskuratzeko. Bikotetutako Bluetooth™ gailu batera konektatzen zaren hurrengo aldi ez duzu berriro pasakodea sartu beharrik izango.

Zenbait Bluetooth™ gailuk, hala nola Bluetooth™ entzungailuek, beste gailuarekin bikotetzea eta konektatzea eskatzen dute.

Telefonoa hainbat Bluetooth™ gailuekin bikote dezakezu, baina Bluetooth™ profil bakarrera konekta zaitezke aldi berean.

Telefonoa beste Bluetooth™ gailuekin bikotetzeko

- 1 Ziurtatu telefonoarekin parekatu nahi duzun gailuak Bluetooth™ funtzioa aktibatuta duela eta gainerako Bluetooth™ gailuentzako ikusgai dagoela.
- 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Bluetootha**. Erabilgarri dauden Bluetooth™ gailu guztiak zerrenda batean azalduko dira.
- 4 Sakatu telefonoarekin parekatu nahi duzun Bluetooth™ gailua.
- 5 Sartu pasakodea, beharko balitz. Telefonoa eta Bluetooth™ gailua bikotetuta daude.

Konektatu telefonoa beste Bluetooth™ gailu batera

- 1 Konektatu aurretik telefonoa parekatzea eskatzen dizun Bluetooth gailu batera konektatzen ari bazara, jarraitu telefonoa gailu horrekin parekatzeko urratsei.
- 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 3 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Bluetootha**.
- 4 Ukitu telefonoa konektatu nahi diozun Bluetooth™ gailua.

Bluetooth™ gailua desbikotetzeko


- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Bluetootha**.
- 3 **Bikotetutako gailuak** aukeran, ukitu  desparekatu nahi duzun gailuaren alboan.
- 4 Punteatu **Ezeztatu bikotetzea**.

Bluetooth™ teknologia erabiliz elementuak bidaltzea eta jasotzea

Partekatu elementuak beste Bluetooth™ bateragarridun gailuekin, hala nola telefonoekin edo ordenagailuekin. Hainbat elementu bidali edo jaso ditzakezu Bluetooth™ funtzioa erabiliz, adibidez:

- Argazkiak eta bideoak
- Musika eta beste audio fitxategi batzuk
- Kontaktuak
- Web orriak

Bluetooth™ erabiliz elementuak bidaltzeko

- 1 **Gailu hartzailea:** Egiaztatu Bluetooth™ funtzioa aktibatuta dagoela eta gainerako Bluetooth™ gailuek ikus dezaketela.
- 2 **Gailu bidaltzailea:** Ireki bidali nahi duzun elementua dagoen aplikazioa eta mugitu elementura.
- 3 Aplikazioaren eta bidali nahi duzun elementuaren arabera, agian, elementua ukitu eta horrela izan beharko duzu, edo elementua zabaldu edo . Baliteke elementua bidaltzeko beste modu bat erabili behar izatea.
- 4 Hautatu **Partekatu** edo **Bidali**.
- 5 Hautatu **Bluetootha**.
- 6 Aktibatu Bluetooth™, hori egiteko eskatuz gero.
- 7 Punteatu gailu hartzailearen izena.
- 8 **Gailu hartzailea:** Eskatuz gero, onartu konexioa.
- 9 **Gailu bidaltzailea:** Galdetuz gero, berretsi gailu hartzailearen transferentzia.
- 10 **Gailu hartzailea:** Onartu jasotzeko elementua.

Bluetooth™ erabiliz elementuak jasotzea

- 1 Egiaztatu Bluetooth™ funtzioa aktibatuta eta ikusgai dagoela gainerako Bluetooth™ gailuentzako.
- 2 Bidaltzeko gailuak datuak bidaltzen hasiko da zure telefonora.
- 3 Galdetuz gero, idatzi pasakode bera bi gailuetan edo berretsi iradokitako pasakodea.
- 4 Telefonoan jasotzeko fitxategi baten berri jakinarazten zaizunean, arrastatu egoera barra behera eta punteatu jakinarazpena fitxategi transferentzia onartzeko.
- 5 Punteatu **Onartu** fitxategi transferentzia hasteko.
- 6 Transferentziaren progresioa ikusteko, arrastatu egoera barra behera.
- 7 Jasotako elementua irekitzeko, arrastatu egoera barra behera eta punteatu informazio adierazgarria.

Jaso dituzun fitxategiak Bluetooth™ erabilia ikusteko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Bluetootha**.
- 3 Sakatu  eta hautatu **Erakutsi jasotako fitxategiak**.

Telefonoa ordenagailura konektatu

Konektatu telefonoa ordenagailu batera eta hasi argazkiak, musika eta beste fitxategi mota batzuk transferitzen. USB kablea erabiltzea edo Bluetooth hari gabeko teknologia erabiltzea da konektatzeko modu errazena.

USB kablea erabiliz telefonoa ordenagailura konektatzen duzunean, ordenagailuan PC Companion aplikazioa instalatzeko eskatuko zaizu. PC Companion-ek ordenagailurako

aplikazio gehigarrietan sartzen laguntzen dizu, multimedia fitxategiak transferitu eta antolatzeko, telefonoa eguneratzeko, telefonoko edukia sinkronizatzeko eta abarrerako.

- ! Baliteke copyrightarekin babestutako zenbait material transferitzeko gai ez izatea telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

USB kablea erabiliz edukia transferitu eta kudeatu

Erabili USB kable bidezko konexio bat ordenagailutik telefonora, eta alderantziz, fitxategiak erraz transferitzeko eta kudeatzeko. Bi gailuak elkarrekin konektatuta daudenean, batetik bestera edukia arrastatu dezakezu ordenagailuko fitxategi arakatzailera erabiliz. Musika, bideoak, argazkiak edo beste multimedia fitxategi mota bat transferitzen ari bazara telefonora, ordenagailuan Media Go™ aplikazioa erabiltzea da onena. Media Go™ aplikazioak multimedia-fitxategiak bihurtzen ditu, telefonoan erabili ahal izan ditzazun.

USB kablea erabiliz telefonoaren eta ordenagailuaren artean edukia transferitzeko

- 1 USB kablea erabiliz, konektatu telefonoa ordenagailu batera. **Barne biltegia konektatu da** agertuko da egoera barran.
- 2 **Ordenagailua:** Ireki Microsoft® Windows® Explorer idazmahaitik eta itxaron telefonoaren memoria txartela Microsoft® Windows® Explorer-en kanpoko disko gisa azaldu arte.
- 3 **Ordenagailua:** Arrastatu eta jaregin nahi dituzun fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

Fitxategiak Wi-Fi® sareen bidez Multimedia transferentzia modua erabiliz transferitzeko


Telefonoaren eta Multimedia transferentzia modua (MTP) onartzen duten gailuen artean fitxategiak transferi ditzakezu, Wi-Fi® konexioa erabiliz. Konektatu aurretik, bi gailuak bikotetu behar dituzu. Musika, bideoak, argazkiak edo bestelako multimedia-fitxategiak transferitzen ari bazara telefonoaren eta ordenagailuaren artean, ordenagailuan Media Go™ aplikazioa erabiltzea da onena. Media Go™ aplikazioak multimedia-fitxategiak bihurtzen ditu, telefonoan erabili ahal izan ditzazun.

- 💡 Eginbide hori erabiltzeko, multimedia-transferentzia onartzen duen Wi-Fi® gaitasuneko gailu bat behar duzu, adibidez, Microsoft® Windows Vista® edo Windows® 7 darabilen ordenagailu bat.


Bikotetu telefonoa haririk gabe ordenagailu batekin Multimedia transferentzia modua erabiliz

- 1 Ziurtatu Multimedia transferentzia modua gaituta dagoela telefonoan. Normalean, lehenespenez gaituta dago.
 - 2 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kablea erabiliz.
 - 3 **Ordenagailua:** Pantailan telefonoaren izena agertzen denean, egin klik *Sare-konfigurazioa* aukeran eta jarraitu telefonoa bikotetzeko argibideak.
 - 4 Bikotetzea amaitutakoan, deskonektatu USB kablea bi gailuetatik.
- ! Emandako argibideek ordenagailuan Windows® 7 instalatuta badago eta ordenagailua sareko kablearen bidez Wi-Fi® sarbide-puntu batera konektatuta badago soilik balio dute.


Konektatu bikotetutako gailuak Multimedia transferentzia moduan

- 1 Ziurtatu Multimedia transferentzia modua gaituta dagoela telefonoan. Normalean, lehenespenez gaituta dago.
 - 2 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 3 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Xperia™ > Konexioak**.
 - 4 Punteatu konektatu nahi duzun bikotetutako gailua **Gailu fidagarriak** atalean.
 - 5 Punteatu **Konek..**
- ! Ziurtatu telefonoaren Wi-Fi® funtzioa aktibatuta dagoela.

Deskonektatu haririk gabe multimedia transferitzeko moduan bikotetutako gailuak

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Xperia™ > Konexioak**.
- 3 Punteatu deskonektatu nahi duzun bikotetutako gailua **Gailu fidagarriak** atalean.
- 4 Punteatu **Deskonektatu**.

Kendu beste gailu batekin duzun bikotetzea

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu **Ezarpenak > Xperia™ > Konexioak**.
- 3 Punteatu kendu nahi duzun bikotetutako gailua.
- 4 Punteatu **Ahaztu**.

PC Companion

PC Companion ordenagailuko aplikazioa da eta musika, bideoklipak eta argazkiak beste telefono batetik eta beste telefono batera transferitzen laguntzeko eginbide osagarrietarako sarbidea ematen dizu. Gainera, PC Companion telefonoa eguneratzeko eta erabilgarri dagoen software berriena eskuratzeko ere erabil dezakezu. PC Companion aplikazioaren instalazio fitxategiak telefonoan daude gordeta eta instalazioa telefonotik abiaraziko da ordenagailura USB kable bidez konektatzen duzunean.

PC Companion aplikazioa erabiltzeko, sistema eragile hauetakoren bat exekutatzeko duen ordenagailu bat erabili behar duzu:

- Microsoft® Windows® 7
- Microsoft® Windows Vista®
- Microsoft® Windows® XP (Service Pack 3 edo berriagoa)

PC Companion abiarazteko

- 1 Ziurtatu PC Companion ordenagailuan instalatuta duzula.
- 2 Ireki PC Companion aplikazioa ordenagailua eta, ondoren egin klik **Abiarazi** aukeran erabili nahi duzun eginbidea irekitzeko.

Media Go™

Ordenagailuko Media Go™ aplikazioak multimedia edukia telefonoaren eta ordenagailuaren artean transferitzen laguntzen dizu. Media Go™ PC Companion aplikaziotik instalatu dezakezu eta bertatik sar zaitezke.

Media Go™ aplikazioa erabiltzeko sistema eragile hauetako bat izan behar duzu:

- Microsoft® Windows® 7
- Microsoft® Windows Vista®
- Microsoft® Windows® XP, Service Pack 3 edo berriagoa

Media Go™ aplikazioarekin edukia transferitzeko

- 1 Konektatu telefonoa ordenagailura USB kable bateragarri bat erabilita.
- 2 **Telefonoa:** Egoera barran, **Barne biltegia konektatu da** agertuko da.
- 3 **Ordenagailua:** Ireki PC Companion aplikazioa ordenagailu pertsonalean lehenengo. PC Companion aplikazioan, sakatu *Media Go* Media Go™ aplikazioa abiarazteko. Zenbait kasutan, Media Go™ instalatu arte itxaron beharko duzu.
- 4 Media Go™ erabilita, arrastatu eta jaregin fitxategiak ordenagailuaren eta telefonoaren artean.

NeoReader™ aplikazioarekin barra kodeak eskaneatzea

NeoReader™ aplikazioarekin eskaneatzeari buruz

Erabili telefonoa barra kodeen eskaner gisa eskaneatzen dituzun elementuei buruz gehiago jakiteko. Adibidez, aldizkari bateko iragarki batean alkandora bat ikusi duzu eta hura salgai dagoen saltokirik gertuena zein den jakin nahi duzu. Iragarkian barra kode irakurgarri bat badago, NeoReader™ aplikazioak barra kode hori erabiltzen du mugikorreko web edukia atzitzeko, hala nola produktuaren informazioa duen web orriren

bat edo hurbilen dauden saltokien mapa. NeoReader™ aplikazioak barra kode mota arrunt gehienak onartzen ditu.


NeoReader™ aplikazioa abiarazteko

- 1 **Hasierako pantaila** pantailan, punteatu .
- 2 Bilatu eta punteatu  NeoReader™.

Barra kodea eskaneatzeko







- 1 NeoReader™ aplikazioa zabalik dagoela, eduki kamera barra kodearen gainean barra kode osoa bisorean ikusi arte.
 - 2 Telefonoak automatikoki eskaneatuko du barra kodea eta dardara egingo du barra kodea ezagututakoan.
- ! Barra kode batzuk txikiegiak dira eskaneatzeko.

Barra kodea eskuz sartzeko

- 1 NeoReader™ aplikazioa irekita dagoenean, punteatu .
- 2 Idatzi barra kodearen zenbakia testu eremuan eta punteatu **GO!**

NeoReader™ aplikazioaren menuaren ikuspegi orokorra

NeoReader™ aplikazioaren menuan aukera hauek daude erabilgarri:

-  Punteatu aukera gehiago irekitzeko
-  Idatzi barra kodearen zenbakiak eskuz. Kamerak ezin badu barra kodea irakurri, aukera hau erabil dezakezu
-  Ikusi aurretik eskaneatutako barra kodeen zerrenda
-  Ikusi NeoReader™ aplikazioari buruzko informazioa. Irakurri gehiago barra kode motei buruz eta NeoReader™ aplikazioa erabiltzeko moduari buruz
-  Hautatu ezarpen pertsonalak, hala nola, hizkuntza edo herrialdea. Informazio hori barra kodearen edukia pertsonalizatzeko erabiltzen da. Gainera, NeoReader™ aplikazioa erabiltzeko hobespenak ere hauta ditzakezu
-  Bidali SMS bat lagun bati NeoReader™ aplikazioa deskargatzera gonbidatzeko

Telefonoan datuak sinkronizatzea

Telefonoan datuak sinkronizatzeari buruz

Kontaktuak, posta elektronikoa, egutegiko gertaerak eta bestelako informazioa sinkroniza dezakezu telefonoaren eta hainbat posta elektronikoko konturen, sinkronizazio zerbitzuren eta bestelako konturen artean, zure telefonoan instalatutako aplikazioen arabera. Telefonoa beste informazio iturri batzuekin sinkronizatzea eguneratuta egoteko modu erraza eta baliagarria da.

Aukerak:


- **Gmail™**, Google Calendar™, Google™ kontaktuak, Google™ Chrome™ laster-markak eta Google-ren beste zerbitzu batzuetara sartzea.
- enpresako posta elektronikoko kontura, kontaktuetara eta egutegiaren aplikazioetara sartzea.
- Facebook™ kontaktuak, egutegia, albumak eta erabiltzen dituzun beste zerbitzuak atzitzea.

Sinkronizatu Google™-rekin


Sinkronizatu telefonoa **Gmail™**, Google Calendar™, Google™ kontaktuak, Google™ Chrome laster-markekin eta Google-ren beste zerbitzu batzuekin. Ikusi eta kudeatu telefonotik ordenagailuan bezala.

Sinkronizatutakoan, **Gmail™** aurki dezakezu **Gmail™** aplikazioan; Google Calendar™ Egutegia aplikazioan; Google™ kontaktuak Kontaktatuak aplikazioan; eta beste datu batzuk instalatuta dituzun Google aplikazioetan.

Telefono Google™ kontu bat automatikoki sinkronizatzeko konfiguratzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Kontuak/Sinkronizazioa**.
- 3 Egiaztatu sinkronizazioa aktibatuta dagoela, aplikazioak datuak automatikoki sinkroniza ditzan.
- 4 Punteatu **Gehitu kontua > Google**.
- 5 Jarraitu erregistro laguntzailea Google™ kontu bat sortzeko, edo hasi saioa, dagoeneko kontua baduzu.
- 6 Punteatu **Hurrengoa**.
- 7 Punteatu sortu berri duzun Google™ kontua eta punteatu sinkronizatu nahi dituzun elementuak.



Google™ kontuarekin eskuz sinkronizatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Kontuak/Sinkronizazioa**.
- 3 Punteatu sinkronizatu nahi duzun Google™ kontua.
- 4 Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Sinkronizatu**.

Arakatzalea Google™ Chrome zerbitzuarekin sinkronizatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Kontuak/Sinkronizazioa**.
- 3 Ukitu Google™ kontua eta, ondoren, markatu dagokion kontrol-laukia arakatzalea sinkronizatzeko.

Google™ kontu bat telefonotik kentzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
- 2 Punteatu **Ezarpenak > Kontuak/Sinkronizazioa**.
- 3 Punteatu kendu nahi duzun Google™ kontua kontuen zerrendatik.
- 4 Sakatu  eta, ondoren, punteatu **Kendu kontua**.
- 5 Punteatu **Kendu kontua** berriro, berresteko.

Enpresako posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak sinkronizatzea

Sartu zuzenean telefonotik enpresako posta elektronikoko mezueta, egutegiko hitzorduetara eta kontaktuetara. Ikusi eta kudea itzazu ordenagailuan bezain erraz. Konfiguratu eta gero, bilatu zure informazioa **Posta elektronikoa**, **Egutegia** eta **Kontak.** aplikazioetan.

- ! Goian azaldutako funtzionaltasunera sartzeko, enpresako informazioa gordeta izan behar da Microsoft® Exchange zerbitzarian.

Konfiguratu enpresako posta elektronikoko kontua, egutegia eta kontaktuak telefonoan

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu ☰.
- 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Kontuak/Sinkronizazioa**.
- 3 Egiaztatu sinkronizazioa aktibatuta daukazula, datuak automatikoki sinkroniza daitezzen zuk ezarritako maiztasunaren arabera.
- 4 Punteatu **Gehitu kontua** > **Lanekoa**.
- 5 Sartu enpresako helbide elektronikoa eta pasahitza.
- 6 Punteatu **Hurrengoa**. Telefonoa kontuko informazioa berreskuratzen hasiko da. Hutsegitea gertatzen bada, jarri harremanetan zure enpresako sarearen administratzailearekin informazio gehiago eskuratzeko; hala nola domeinuaren izena eta Exchange zerbitzariaren helbidea.
- 7 Ukitu **Ados** zure enpresako zerbitzariari zure telefonoa kontrolatzen uzteko.
- 8 Hautatu telefonoarekin zer datu sinkronizatu nahi dituzun; esaterako, kontaktuak eta egutegiko informazioa.
- 9 Nahi izanez gero, aktibatu gailuaren administratzailea enpresako zerbitzariari telefonoko segurtasun-eginbide batzuk kontrolatzea baimentzeko. Adibidez, eman enpresako zerbitzariari pasahitzaren arauak ezartzeko eta biltegitatzearen enkriptatzea ezartzeko baimena.
- 10 Konfiguratzen amaitutakoan, enpresako kontuari izena jar diezaiokezu, erraz identifika dadin.

Enpresako posta elektronikoaren, egutegiaren eta kontaktuen konfigurazioa editatzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu ☰.
- 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Kontuak/Sinkronizazioa** eta hautatu zure enpresako kontua.
- 3 Ukitu **Kontu ezarpenak** eta, ondoren, editatu nahi duzun enpresaren kontua.
- 4 Aldatu nahi dituzun ezarpenak.

Ezari laneko kontuaren sinkronizazio tarte

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu ☰.
- 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Kontuak/Sinkronizazioa** eta hautatu zure enpresako kontua.
- 3 Ukitu **Kontu ezarpenak** eta ondoren ukitu sinkronizazio maila ezari nahi diozun enpresako kontua.
- 4 Punteatu **Sarr. ontziaren maiztasuna** eta hautatu tarte bat.

Enpresako kontu bat telefonotik kentzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu ☰.
- 2 Punteatu **Ezarpenak** > **Kontuak/Sinkronizazioa**. Ondoren, punteatu enpresa kontua.
- 3 Sakatu ☰ eta, ondoren, punteatu **Kendu kontua**.
- 4 Punteatu **Kendu kontua** berriro, berresteko.

Facebook™-ekin sinkronizatzea

Bi modu daude telefonoan Facebook™ erabiltzeko. Zure ohiko Facebook aplikazioa erabili dezakezu zure Facebook sareko aplikazioan sartzeko, edo zure Facebook kontua zure telefonoarekin sinkronizatu eta zuzenean sartu Facebooken edukietan aplikazio pila batetik. Esaterako, Timescape™ zerbitzutik mezuak argitara ditzakezu Facebook-en;

baita Facebook-eko kontaktuak, argazkiak eta egutegiko datuak telefonoko erlacionatutako aplikazioetatik atzitu ere; hala nola, Egutegia aplikaziotik. Zure telefonoa Facebookekin sinkronizatzeko, lehenengo Facebook integrazio kontuan erregistratu behar duzu -- Sonyk integrazioa errazteko sortu duen soluzioa.




Telefonoan Facebook™ integrazio kontua konfiguratzeko

- 1 **Hasierako pantaila** ikuspegian, punteatu .
 - 2 Punteatu **Ezarpenak > Kontuak/Sinkronizazioa**.
 - 3 Egiaztatu sinkronizazioa aktibatuta dagoela, aplikazioek datuak automatikoki sinkroniza ditzaten.
 - 4 Punteatu **Gehitu kontua > Xperia™ Facebook bateratzea**.
 - 5 Jarraitu pantailako jarraibideei Facebook™ integrazio kontua sortzeko edo, dagoeneko kontua baduzu, hasi saioa.
-  Facebook™ integrazio kontua telefonoan konfiguratzeko **Ezarpenak > Xperia™ > Xperia™ Facebook bateratzea** ataleko **Facebook bateratzea** kontrol laukia ere marka dezakezu.

